

Elkarrizketa
politikoak

ZALDIBAR



"Onartu berri ditugun aurrekontuetako egitasmo nagusia eskolako jolastokia eraberritzea eta handitzea da"

Zaldibar • Eneritz Azpitarte alkateak azaldu du eskolako patioaren proiektua eta Sanjuangoan kultur etxea eraikitzea direla Zaldibarko Udaleko gobernu taldearen (EH Bildu) legegintzaldiko erronkak. • 2-3

Zornotza • Ane Elordi Alburquerque zornotzarra Korrikako koordinatzailea da. Korrikako lehenengo edizioa izango du koordinatzaile karguan. Korrikaren 23. edizioa martxoaren 14an hasiko da, Irundik, eta martxoaren 24an Baionara ailegatuko da. Bidean, birritan bisitatuko du Durangaldea, martxoaren 20an eta 22an. • 5



"Euskaraz harro bizi gura dugula eta bizi garela adierazteko momentua da"

Zortzi urteko lan boluntario isila, etorri berriak bertakotzen laguntzen

Durango • Constan Dacostak zortzi urteko lan boluntarioa egin du Espainiako hiritasuna eskuratu gura duten etorri berriei gaztelaniari eta ezagutza kulturalari buruzko azterketak prestatzen laguntzen. • 4

Euskalgintzagaz elkarlanean antolaturiko emanaldian estreinatuko dute 'Bizkarsoro'



Zinema • Euskarak eta euskaldunek jasandako errepresioa ardatz duen 'Bizkarsoro' estreinatuko dute asteburuan Durangoko Zugaza zinemaren. Euskalgintzagaz elkarlanean antolaturiko emanaldiak izango dira gaurkoa eta domekkoa. Filmeko zuzendari Josu Martinez elkarrizketatu du ANBOTOK. • 18



Eneritz Azpitarte Aranzabal

Zaldibarko alkatea

ZALDIBAR | 1985

“Kultur etxea Sanjuangoan egotea pauso garrantzitsu bat izango da Alde Zaharra berpizteko”

Zaldibarko gobernu taldearen erronka nagusiak eskolako patioaren eta Sanjuangoa kultur etxearen proiektuak dira

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

EH Bildu Zaldibarko Udaleko gobernura heldu da Eneritz Azpitarte buru duela. Dagoeneko onartu dituzte 2024rako aurrekontuak, eta aurtengo kontuetan eskolako patioa izango da inbertsiorik nabarmenena. Etorkizuneko proiektuez gainera, Zaldibarko hondakindegia eragozgarri buruz eta zabalik dagoen auzibideari buruz berba egin du alkateak.

Zelan hasi duzue legegintzaldia?

Legegintzaldi berria gogotsu har-

tu dugu, ikusten dugulako Zaldibarko behar dituen proiektuak martxan ipintzen gabiltzala. Horren adibide nagusia eskolako jolastokia handitzearen eta eraberritzearen proiektua da. Bestalde, Sanjuangoan kultur etxea egitea ere egitasmo garrantzitsua da, Zaldibarko herritarrok eskubidea dugulako kulturaz gustura gozatzeko. Horretarako, beharrezkoa ikusten dugu kultur etxea edukitzea. Hori guzti hori aurrera eramateko gobernu taldean oso lantalde ona daukagula uste dut.

Joan zen abendu amaieran aurrekontuak onartu zenituzten. Zeintzuk dira 2024rako egitasmo nagusiak? Onartu berri ditugun aurrekontuetako egitasmo nagusia eskolako jolastokia eraberritzeko eta handitzeko proiektua da. Beste proiektu batzuk ere aurreikusi ditugu. Esate baterako, 40.000 euroko diru atal bat ipini dugu Eitzaga auzoa hobetzeko. Azken urteetan, Eitzagako auzokideek asko disfrutu dute azpiegiturak direla eta, eta auzotarrek ikusten dituzten beharrezko erantzuteko partida onartu dugu. Hobekuntza guztiak auzotarren iritzia kontuan hartuta egingo ditugu.

Legegintzaldira begira, zeintzuk dira ildo nagusiak?

Ildorik estrategikoena kultur etxea egitea izango da. Horretarako, Zaldibarko Udalak ahalegin ekonomiko handia egingo du. Guretzat horixe da proiektu nagusia. 2019ko egitasmoa ekonomikoki eguneratzen gabiltza, eta arautegi berrira moldatzen ere bai.

Zeintzuk dira beharrezkoak eskolako patioan?

Eskolako patioa beharrezko nagusia aisialdiagaz lotuta dago. Berdegune gehiago behar da.

Gaur egungo patioan kirolguneak daude erdigunean, eta beste dena aparte dago, beste hainbat ikastetxetan legez. Umeek espazioak behar dituzte beste era batera jolasteko, pentsatzeko eta egoteko. Leku lasaiak ere behar dituzte. Gaur egun dugun patioa zementu hutsa da eta berdegune gehiago behar dugu.

Zer aurreikusten du eskolako patioaren proiektuak?

Gaur egun esku artean dugun proiektua zenbait fasetan egin beharko dugu. 2024an patioa handituko dugu. Eta, handitzera koan, eskola eremuaren ondoan dagoen berdegune bat berreskuratu dugu eskolako jolastokirako. Lasai egoteko eta kirola egiteko guneak ere badaude aurreikusita. Harmaila batzuen bitartez antzerkirako gunea ere bai.

Zertan datza kultur etxearen proiektua?

Gaur egun daukagun liburutegia txiki geratu zaigu. Beraz, kultur etxe berriari liburutegi handiagoa egokitzeko asmoa dugu, eta zenbait gune izango du: ume txikiak, haurren, nerabeena... Gela multifuntzional handi bat planteatzen dugu, 80 bat pertsonarentzat. Bilera gelak ere izango lituzke.

Kultur etxearen inguruan, ez zatozte bat EAJgaz.

Alderdi bakoitzak hobeto irizten dion kokapena defendatzen du. Guk Sanjuangoako eraikina bultzatu dugu. Gainera, uste dugu kultur etxea Sanjuangoan egotea, pauso garrantzitsu bat izango dela Alde Zaharra berpizteko.

Laster lau urte beteko dira Verter Recycling hondakindegia amildu zenetik. Zaldibarko Udalak epaitegi-tara jo zuen. Zelan doa auzibidea?

Zer gertatu zen jakin gura dugulako ipini genuen martxan auzibidea, eta erantzukizuna norena izan zen argitzea gura dugulako. Ingurumeneko auzibideak aurrera jarraitzen du.

Iazko txosten baten arabera, hondakindegia egonkortasun arazoak zituen.

2023ko maiatzean, Larrea Geotecnia y Geologia enpresak kaleraturiko txostena ezagutu genuen. Txosten horretan ohar-tarazi zuten hondakindegia eragozgarritasuna ez zela nahikoa. Datu horiek ezagutu genitue-

“Eskolako patioa beharrezko nagusia aisialdiagaz lotuta dago. Berdegune gehiago behar da. Gaur egungo patioan kirolguneak daude erdigunean, eta beste dena aparte dago”

nean, Eusko Jaurlaritzari gutun bat helarazi genion herritarren segurtasuna bermatzea eskatzeko. Horren ondoren, bilera bat egin genuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailagaz, eta gure kezka azaldu genien. Eusko Jaurlaritzak egoera onartu du eta zabortegea egonkortzeko obrak egiteari ekin diote.

Baduzue hartu-emanik Eitzagako auzokideekin?

Gobernura heldu eta berehala, ekainean bertan, bilera bat egin genuen Eitzagako auzotarrekin, euren kezka azaltzeko. Auzoan hobekuntzak egingo ditugunez, berriro ere eurekin batzea eta elkarlana izatea da gure asmoa. Eitzagako auzokideek arduraz bizi dute aipaturiko txostenak esanikoa. Zabortegearen beheko aldean bizi dira. Hondakindegia alde batera amildu zen, eta beldurra dute. Kontuan izan behar da auzokide batzuek hileak egin zituztela etxetik kanpora. Eurentzat kapitulu hau ez dago itxita.

Ekitza bandalikoak ugaritu egin dira Zaldibarren. Arduratuta zaudete?

Azken urteetan, bandalismoa presente dugun gai bat da eta arduratu egiten gaitu. Astebururo zerbait apurtzen dute eskola eremuan. Udaletik bandoa atera genuen kontzientziaz kanpaina bat egiteko. Eskolagaz ere bagabiltza gai hau lantzen, eskolak ere baduelako zer esan. Umeak, familiak eta herritarrak gertatzen dabilenaren inguruan kontzientziatzea da helburua.

Zein da Zaldibarko merkataritzaren egoera?

Komertzioak zarratzen ari dira eta berriak oso gutxi sortzen dira. Udaletik bonu kanpainak egiten ditugu, eta ostalariei begira pintxo lehiaketa egingo dugu. Ahal dugun neurrian laguntzen ahalegintzen gara. Badakit elkarre bat sortzen dabiltzana indarrak batzeko eta laguntza gehiago jasotzeko.

Bonuek ondo funtzionatzen dute?

Oso ondo funtzionatzen dute. Udalak 7.500 euroko laguntza ematen du eta oso harrera ona dute. Merkataria oso pozik daude horregaz. Bestalde, ahalegina egiten dugu udalak egiten dituen ekintzetarako herriko komertzioetan erosten.

Zein egoeratan dago etxebizitza arloa Zaldibarren? Gazteek badute aukerarik herrian geratzeko?

Etxebizitza gutxi dago alokai-

ruan, eta dagoena oso garesti. Horixe da tendentzia. Gazteek arazoak dituzte gurasoen etxetik irteteko. Orain lau urte, Etxebizitza Sailagaz hartu-emanetan egon ginen parkeko hotelean etxebizitzak egiteko, eta mahai gainean dugun proiektu bat da. Hurrengo lau urteetan gai honi bultzada ematea da gure asmoa.

Osasun zentroari dagokionez, badago arazorik lehen arretagaz?

Bai, bajak egoten direnean, askotan ez da ordezkorik ipintzen. Abenduaren 15ean Osasun Saileko arduradunagaz batzartu ginen, bajak betetzea eskatzeko. Eurek diotena da ez dagoela medikurik. Gaur egun, Zaldibarko mediku guztiak ordezkatuta daude, baina gertatu daiteke momenturen batean ez egotea.

Osasun zentroa handitzea ere eskatu duzue.

Bai, osasun zentroa txiki geratu da. Salak txikiak dira eta arreta zerbitzua jende guztiaren aurrean egiten da. Zaharkituta geratu da eta gaur egungo beharrezanetara egokitu beharko litzateke. Alde horretatik, parkeko hoteleko beste alde guztian obra egitea proposatu diogu Osasun Sailari. Horrela, obrek irauten duten bitartean, espazio zaharrea funtzionatzen jarraituko luke. Datorren astean bilera



dugu Osasun Sailagaz eskaera hau egiteko, eta baita parkeko hoteleko etxebizitzaren proiektua azaltzeko ere.

Errepide nazionalak herria zeharkatzen du. Aldundiak badu proiektu bat. Bat egiten duzue egitasmo horregaz?

Proiektu bat mahai gainean dago, batez ere trafikoa moteltzeko. Zebrabideak egiteaz gainera, Muelles Zaldua inguruan beste biribilgune bat egingo litzateke. Era berean, errepidea alboratu egingo litzateke San Andresen, eta auzoak lur eremu handiago irabaziko luke herritarren

segurtasunerako. Baina guk gabezia bat ikusten diogu proiektuari. Artia inguruan ez dago zebrabiderik. Gaur egungo lurpeko pasabidea mantentzen da. Zaldibarko biztanleen herena herriaren beste aldean bizi gara eta normaltasunez pasatu gura dugu errepidetik. Gorago zebrabide gehiago aurreikusten da, baina puntu horretan ez. Aurreko legegintzaldian alegazio hori ipini genion proiektuari. Orain ere beharrezko ikusten dugu eta Aldundiari eskaera egin diogu Artian zebrabidea egitea aztertu dezan.

Euskararen kale erabileraren inguruan datu onak jaso zenituzten Zaldibarren.

2021ean euskararen kale erabilerara neurtu genuen. 2016ko eta 2021eko datuak alderatuta, hiru puntuko igoera izan zen. Aurreko 15 urteetako epeari begiratuta, kale erabileraren datuak nabarmen egin du gora, 11 puntu, hain zuzen ere. Oso datu positiboa da, eta pozgarria da. Udalak apustu handia egiten du euskararen erabilerara bultzatzeko. Horretarako, hartu-eman estua dugu eskolagaz, eta Gazteleku eta Zapatublai ekimenak ditugu aisialdiari begira.



Okm: batzen gaituen distantzia

abantaila
guztiak
hemen >



Egin zaitez anbotokide!

**30€
urtean!**

**anboto
kide**

“Komunitateak arlo profesionalean eman dizuna bueltatzea dagokizu, era batera edo bestera”

Constan Dacostak zortzi urteko boluntario lana egin du etorri berriei Espainiako hiritartasuna lortzeko azterketekin laguntzen



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Constan Dacostak (Ourense, 1946) zortzi urteko boluntario lana egin du Durangon etorri berriei hizkuntza eta kultur azterketak prestatzen laguntzen Espainiako hiritartasuna eskuratu ahal izateko. "Galizian sorturiko eibartar" legez aurkezten du bere burua, eta, beharbada, iragan industrial sakoneko langile-herri horretan hazi izanak konfiguratu dio gizarteagaz duen konpromiso soziala.

Zortzi urteko boluntario lana egin duzu. Badira urte batzuk.

Bai. Durangoko lan honetaz gainera, Gurutze Gorriarentzat ere antzera bateko lana egin dut urte bian. Jubilatatu nintzenetik Unicef erakundeagaz ere esku hartu dut. **Zerk motibatuta ekin zenion etorri berriei Espainiako hiritartasuna lortzeko azterketekin laguntzeari?**

Ez dago aparteko arrazoirik edo hausnarketa espezifikorik. Bizitzan

zehir izandako ibilbidearen segida dela esango nuke. Soziologia ikasi nuen, kooperatiba batean hasi nintzen lanean, eta handik kooperatiba handiago eta boteretsuago batera egin nuen salto. Nik bizi izandako esperientzia profesionalak lotura estua du bizitzeko modu batez, eta boluntariotza lan honen ere eredu horretatik edaten duela esango nuke. Azken finean, egindako lanari eskerrak eta komunitateari eskaini diozun zerbitzuari eskerrak, zuk zeure ondarea, zeure kapitala daukazu. Horrenbestez, zure ibilbide profesionalean komunitate horretatik hartu duzuna, zuri zer ikasia eman dizun hori, modu batera edo bestera komunitateari eman dizuna berriro ere gizarteari bueltatzeko era bat da.

Zein izan da zure betebeharrak zortzi urte hauetan?

Espainiako hiritartasuna lortu gu-

ra duten herritarrei gaztelania eta kultura azterketa prestatzen laguntzea, Durangoko Udalaren Immigrazio Sailak zeregin horretarako antolatzen dituen taldeen barruan. Hiritartasuna lortu gura duten etorri berriei proba nagusi bi egin behar dituzte. Batetik, gaztelania ondo dakitela adierazteko azterketa. Oinarrizko maila baino zerbait gehiago eskatzen da. A2 maila, gutxienez. Klaseetan ariketa ugari egin dugu irakurmena lantzeko, entzumena lantzeko, berba egiteko eta gutun formalak idazteko. Beste proba ezagutza soziokulturalari eta Espainiako Konstituzioaren ezaugarri buruzkoa da. Edozelan ere, bakoitzak bere beharrezkoak ditu. Gaztelania ama hizkuntza duten etorri berriei, adibidez, ez dute hizkuntza proba zertan egin.

Zelan antolatzen dituzue klaseak?

Astean hiru egunez izan ditugu klaseak. Hiru orduko klaseak egu-

neko. Durangoko Immigrazio Sailak antolaturiko zerbitzu honetan 12-17 lagun daude izena emana. Baina klaseetan 6-9 batu izan gara. Eta horrek badu azalpena. Hona datozten gehienak emakumeak dira, gazteak, ume txikiak dituztenak. Eta askotan, umea gaixotzen denean edo halakoetan, zaintza lanez arduratu behar izaten dute. Bestalde, askok erreleboka lan egiten dute eta ezin izaten dira klase batzuetara etorri. Baina aste batean ezin badute ere, hurrengoan bai, etortzen dira.

Zeintzuk dira etorri berrien beharrezkoak?

Hemendik igarotzen direnen interes nagusia integrazioa da. Baina dituzten baldintzak ez dira onenak horretarako. Taldeka bizi dira. Periferiako auzoetan asko, erdigunean gutxi, eta, horrenbestez, gutxiago nahasten dira bertako herritarrekin. Zailtasunak dituzte hizkuntzagaz, eta euren azalaren kolorea ez zaie gustagarria inguruan dituzten bizilagun guztiei. Bizitzaren aurrean, sakrifizioari loturiko jarrera dute. Oso txarto pasatu dute. Sorterria atzean uzteak eta hona heldu arteko bidaia esperientzia oso gogorra izan da askorentzat. Integrazioari dagokionez, exijenteagoak gara haiekin hemengoekin baino. Badirudi integrazteko nahikoa ez den plus bat eskatzen diegula beti. Helburu berdinak lortzeko, haiek guk baino zailtasun gehiago dute.

Beharrezkoak duenari laguntzen orduak eta egunak emateak zelan eragiten dio boluntarioari? Elkarrenganako hartu-eman dependiente bat sortu daiteke?

Esango nuke hori boluntarioaren arabera dela, izaeraren arabera. Iruditzen zait boluntario gehienek ez dutela beharrezkoa baino lotura handiagoa egingo, hor hartu-eman zaildu deza-

keen zerbait antzematen badute. Normalean gehiago inplikatzeko zara interesa agertzen duenagaz. Istorioak partekatzen dituzu, bizi-penak. Eta iruditzen zait boluntarioak begirada poliedrikoago bat irabazten duela horri eskerrak. Desberdintzat jotzen zenuen hori berdin-berdin ikusten duzu azkenean. Begirada kolonialista kentzen duzu, zelanbait.

Begirada kolonialista dugu?

Modu sutil batean bada ere, arrazistak gara. Hori pentsatzen dut. Egitate baten aurrean, egilea bertakoa bada, ez duzu gorpuzkeraren, loditasunaren edo altueraren arabera epaitzen. Egilea beltza edo mairua bada, ostera, azpimarra egiten diogu horri. Kolorea ikusten dugu. Horrek konfirmatzen du bati eta besteari desberdin begiratzeko diegula.

Zerk bultzatu zaitu zerbitzu honi amaiera ematea?

Orain arte era boluntarioan garaturiko zerbitzu hau udalak hartuko du bere gain aurrerantzean. Horretarako, udalak diru atal bat ipini du. Horrek bermatu egingo du zerbitzuaren jarraikortasuna.

Zer eman dizu boluntariotza lan honetarako?

Poza. Azterketak gainditu eta gero, asko etorri dira eskerrak ematera. Baten bati lagundu diozula sentitzeak egundoko poza dakar. Tarte-ka, kalean, eurerariko batzuekin topo egiten dut. Badut haien berri. Pena emango lidake hori galtzeak. **Zer esango zenieke lan boluntarioan, arlo honetakoan zein beste arlo batekoan, jarduteko dudak daudenei?**

Instituzioen edo alderdi politikoen konpromisoaz gainera, kausak behar dira. Laguntasuna behar duten kausak. Eta, horretarako, bitartekoak ipini behar dira. Laguntasuna ematen duenak ikusi behar du bere lanak eragin bat duela, funtzio bat duela. Lagundu gura duenak bere ingurura begiratu behar du, laguntasuna behar duten kausak identifikatzeko. Kontzientzia hartze bat lehenengo, eta bitartekoak sortzea zein eskatzea gero. Hortik aurrera, boluntarioa bera izango da lehenengo onuraduna.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2024ko urtarrilaren 12a
22. urtea - 963. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Oso presente eduki behar dugu Korrika aldarrikapenerako ekimena dela”

Ane Elordi zornotzarra Korrikako koordinatzailea da. Lehenengo edizioa du karguan. Euskaraz harro bizitzeko deia egin du



ZORNOTZA • TOKIKOM

Korrika martxoaren 14an hasiko da, Irundik, eta martxoaren 24an Baionara helduko da. Hamaika egun euskararen alde korrika, eta, poliki-poliki, ari dira aurtengo edizioaren xehetasunak ezagutzen. Atzo aurkeztu

zuten 23. edizioa ibilbidea; hori eta aurtengo edizioari buruz gehiago jakiteko, Korrikaren koordinatzaile Ane Elordi elkarrizketatu du TOKIKOMek.

Orain urtebete pasatxotik zaitugu Korrikako koordinatzaile. Zer moduz?

Ondo. Korrikako arduraduna izatea izugarritzko ardua da. Nik beti esaten dut lan hau ez dela bakarrik egiten. Talde handi baten laguntza jasotzen dut eta egunerokotasunean taldean aritzen gara. Apurka-apurka, bagoaz edizioa prestatzen.

Zertan igarriko da gidaritza aldaketa hori?

Bakoitzak bere aletxoa ipintzen dio. Nik garrantzi handia ematen diot taldeari. Azkenengo ikasturtean askotariko hausnarketak eraman ditugu aurrera. Esaterako, gizarte erantzukizuna landu izan dugu, eta aztarna ekologikoa. Korrikak arropa ateratzen du eta arropa hori nondik datorren aztertu dugu; materialetan ere berrikuntzak egiten ahalegindu gara. Euskarri dagokionez, Korrika hurbildu ahala Euskal Herri osoa apaintzeko ardua hartzen dugu, baina apainketa hori, sarri, plastikoz egin izan dela iruditu zaigu. Orduan, beste modu bateko apainketa batzuk sustatzen gabilta.

Zelan definituko zenuke Korrika?

Korrika zerbait bada, nire ustez, emozio-jai bat da, baina ezin dugu ahaztu, sarri, jai horretan geratzen garela eta oso presente eduki behar dugula aldarrikapenerako ekimena dela. Euskararen inguruan antolatzen den Euskal Herriko ekimenik erraldoiena da. Gizarte osoa mugiarazten du eta muga bakarra hizkuntza bera da. Orduan, oso ekimen potentea da.

Eta zelan hartu tamaina? Zelan egin patxadazko antolaketa bat? Zelan ari zarete?

Ez da erraza, baina bagabilta. Eguneroko lana da. Batzuek Gabonetako oporrak izango zituzten orain gutxi. Gu, beste martxa

batean, baina lanean ibili gara, eta apurka-apurka. Gustura egiten den lana da, eta, behin Korrika amaituta, orduan hartuko dugu atsedena.

'Harro herri' lelopean egingo da; azaldu iezaguzu hitz pare horren ideia.

Batetik, azpimarratu gura izan dugu badela momentua euskaraz harro bizi gura dugula eta bizi garela adierazteko. Harro, baina ez konforme. Aldi berean, lehen esan dut Korrika aldarrikapenerako egitasmoa dela, eta ezin dugu ahaztu azaroaren 4an Kontseiluak deitutako manifestazio hartan bildutako jende guztia. Hori da, gure ustez, badagoela gogo bat euskaraz Harro herri sortzeko. Orduan, gutako bakoitza nahiz eta ezberdina izan, bakoitzak bere iritzi, pentsaera eta jokaerak izango ditu, baina hizkuntzak berak batuko gaitu. Euskaraz batuta sortuko dugu komunitatea Harro herri.

Aurtengoari dagokionez, zer nabarmenduko zenuke?

Aurtengoa Irundik hasiko da eta Hondarribiraino joango da. Adibidez, hor joan-etorria, ez dago aukera askorik. Eta gero, Ipar Euskal Herria sartuko da. Ipar Euskal Herri osoa zeharkatu eta Zuberoatik Nafarroara joango da. Azken edizioetako joera Erribera inguruan asteburua egitea izan da. Gainera, Euskal Herriko talde, elkarte eta lagun asko batzen da inguru horretan Korrikaz gozatzeko. Badelako beste modu bat, norberaren herrian bai baina beste leku batzuetara ere joateko. Gero, apurka gorantz joango da: Arabara, Gipuzkoara eta Bizkaira.

Beti kontuan izaten da aurrekoan nondik ez ginen pasatu edo noiz pasatu ginen azkenengoz. Badira leku batzuk lau urterik behin ikusten dutenak euren herrian Korrika. Horrelakoak ere kontuan izaten dira. Nabarmenezkoa da, adibidez, Durangaldean aspaldi ez dela igaro Mañaritik. Aurten bai. Gero, Urkiola mendatea igo beharko da. Elantxobetik ere pasatuko da. Horrelako keinutxoak egin dira.

Parte hartzeko moduei dagokionez, zelan parte hartu daiteke Korrikan?

Eskaintza kulturala izugarria da. Kilometroak eskuratu eta korrika egitea izan daiteke modu bat, espaloitik txalo egin eta animatzea... Gure webgunean horiek guztiak bilduta daude. Arropa ere atera dugu, ekarpen ekonomikoa egiteko moduak asko dira: Korrika laguntzaile bihurtu, herririk herri antolatzen diren batzordeetan antolaketa lanetan aritzeko. Sarri AEK-ko kideon esku geratzen den lana da, baina Korrika batzordeak ia herri guztietan sortzen dira. Aukerak, milaka.

Urte birik behin, hamaika egun eta hamar gau lasterka. Eta gero zer? Zertarako baliatu beharko litzateke Korrikak bistaratutako indarra?

Sarri, kezka hori guk geuk ere izaten dugu. Horretan badugu lana eta erronka. Lehen esan dudan modura, azaroaren 4an indar agerraldi bat egin zen, herriak erantzun zuen. Orain, Korrika dator, eta herriak erantzutea espero dugu. Gero Euskaraldia etorriko da. Orduan, denon artean asmatu beharko dugu zikloa aritzeko eta indar hori metatu eta erabiltzeko modua.

Korrikaren 23. edizioak birritan bisitatuko du Durangaldea: martxoaren 20an eta 22an

Korrikak argitu du zein izango den 23. edizioa ibilbidea. Etenik ez duen lasterketa erraldoia martxoaren 14an hasiko da, Irungo (Gipuzkoa) San Juan plazatik, udaletxearen aurretik, 16:00etan. Eta martxoaren 24an zapalduko du helmuga, Baionako (Lapurdi) Askatasunaren plazan, Herriko Etxearen aurrean, 12:20 aldera. Hamar egun horietan zehar, AEKren ekimenak birritan bisitatuko du Durangaldea. Martxoaren 20an eta 22an.

Lehenengo sartu-irtena

Martxoaren 20an, lasterketa 08:54 aldera sartuko da Zaldibarren, Aixolako urtegiko bideetan behera eginda. Urtegia igaro eta Eitzagan sartuta, Korrikak Goierrri auzora egingo du

gero, handik Areitioko gainera egin eta Mallabiko herrigunera sartuko da. Mikel Zarate kalean behera egin, industrialdea pasatu, eta Ermuan sartuko da.

Bigarren bisita

Martxoaren 22an, Korrikak Durangaldeko herririk gehienak bisitatuko ditu. 17:39 aldera sartuko da Zornotzan, Lemoatik. San Pedro kalean aurrera eginda, udalerriko erdigunea zeharkatuko du, gero Gane aldera egin, eta handik Iurretarako bidea hartuko du. Iurreta zeharkatu eta gero, Korrikak Traña-Matienarantz joko du, N-634 errepidean zehar. Zubibitarte kalea zeharkatu ondoren, berriro ere errepide nagusira irtengo du, eta handik

Berriz aldera joango da. Olakuetatik Miotarako bidea hartuko du. 20:30 pasatxoan, Elorrioko Erreka kalera ailegatuko da. San Agustin auzoa atzean utzi eta gero, Atxondon sartuko da. Bidean aurrera eginda, Korrikak Abadiñoako Solozabal kalea igaro eta Durangorako bidea hartuko du. Zeharmendieta kalean behera eginda sartuko da Durangon. Herriko hainbat kale zeharkatu eta gero, Izurtzarako bidea hartuko du, Galtzaretza kaletik. N-623 errepidea hartuta, Izurtza eta Mañaria zeharkatuko ditu. Urkiolan gora eginda, gauerdialdera ailegatuko da mendateko gainaldera. Gauerdiosteant sartuko da Otxandioko herrigunean. Handik Legutiorako (Araba) bidea hartuko du.



Euria gogotik bota arren, mallabitarrek erantzun bikaina eman zioten 2022ko Korrikari.

Bihar baso eremu bat prestatuko dute urtarrilaren 28an auzolanean 380 zuhaitz landatzeko bertan

Elorrio-Atxondo Baso Biziak elkarteak antolatu du ekimena, bigarren; bihar zuloak egin eta eremua prestatuko dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bertako basoak eta zuhaitzak sustatzeko asmoz, Elorrio-Atxondo Baso Biziak elkarteak zuhaitz landaketa antolatu du, bigarren. Zuhaitzak auzolanean landatuko dituzte, urtarrilaren 28an, baina, horren aurretik, zapatu honetan eremua prestatzera joateko

gonbidapena egin dute. Eremua prestatzen parte hartu gura dutenek bihar, urtarrilak 13, San Jose parkeko frontoira joan behar dute, 09:00etarako. Aurretiaz izena eman beharko dute.

Zuhaitz landaketan edozein herritarrek parte hartu ahal izango du, baina biharko prestaketa lane-

tan pertsona helduak baino ezingo dira aritu, helburua zuloak egin eta eremua seinaleztatzea izango da eta.

Landaketa, urtarrilaren 28an

Landaketa bera urtarrilaren 28an izango da eta, guztira, 380 bat zuhaitz landatuko dituzte, Elorrioko Udalaren lursailetan. Haritza eta artea landatuko dituzte batez ere, baina baita urkia eta elorri zuria ere.

Landaketara herritar guztiak daude gonbidatuta, haur zein heldu. Egun horretarako ere 09:00etan ipini dute ordua, San Jose parkeko frontoian. Boluntarioak oinez joango dira frontoitik landaketa puntura. Antolatzaileek azaldu dutenez, ordubeteko ibilaldia izango da eta bakoitzak bere aitzurra eta arropa eta oinetako egokiak eramatea gomendatu dute.



Aurreko edizioko argazkia.

Batzar zabalak egingo dituzte Elorrioko Gaztetxearen 36. urteurrena antolatzeko

Gaztetxearen urteurren jaia otsailaren 10ean ospatuko dute. Aurrez hiru batzar zabal egingo dituzte



Gaztetxearen 35. urteurrenean Mamuen Jaia ospatu zuten. @ELORRIXOKOGAZTETXEA

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Otsailaren 10ean Gaztetxearen 36. urteurrena ospatuko dute Elorrioko. Gaztetxeok dagoeneko hasita daude jaia antolatzen, eta sare sozialetan azaldu dute herritarren ideia eta proposamenak jaso gura dituztela. Hori dela eta, urteurrena antolatzeko, batzar zabalak egitea pentsatu dute. Lehenengoa urtarrilaren 19an izango da, 20:00etan. Batzarraren ondoren, koktel gaua egingo dute Gaztetxean. Bigarren bilera urtarrilaren 28an izango da, 18:00etan. Batzarraren ondoren, afaria egin-

go dute. Hirugarren eta azken batzarra otsailaren 2an izango da, 19:00etan.

Zine gauak Gaztetxean

Gaztetxeok euren sareetan zabaldu dutenez, zine gauak egiten hasi dira, astean behin, "aspaldiko ohitura bat" berreskuratzeko asmoz. Zine gauak urtarrileko eguazten guztietan izango dira, 20:00etan, Gaztetxean bertan. Urtarrilaren 17an *Bolante baten historia* emango dute, urtarrilaren 24an *Ez donk amaitu*, eta urtarrilaren 31n *Unicorn Wars*.

Abadiñon urteko lehenengo azoka egingo dute domeka honetan, urtarrilak 14

Azoka Zelaietako Txanporta plazan izango da, urtarrilaren 14an, 10:30etik 14:00etara

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zelaietari bizia eman guran, Abadiñoeko zenbait ekoizle eta artisauk ekimen berri bat ipini zuten martxan iazko urte amaieran. Hileko bigarren domeketan, herrian azoka egiten hasi ziren.

2024ko lehenengo azoka domeka honetan egingo dute, 10:30etik 14:00etara, Zelaietako Txanporta plazan. Bertaraten direnek deneriko produktuak aurkituko dituzte: ardi-gazta, ahuntz-gazta, ezti, ogia, ortuariak, esnekiak eta txahal okela, besteak beste. Baita ehungintzako produktuak, bitxiak, makrame teknikaz eginiko lepokoak, kosmetika naturala, kontserbak eta abar.



Abadiñoeko aurreko azoka bateko argazkia.

Traña-Matienako trafikoari eta bide egoerari buruzko azterlana eskatu dute

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoeko Udalak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, Traña-Matienako trafikoari eta bide egoerari buruzko azterlan bat eskatu du. Azterketak hiru xede ditu. Alde batetik, egungo trafikoa hobetzeko proposamenak aztertzea eta aurkeztea; bestetik, alderdi kritikoa apartekuen inbentarioa da; eta, azkena, bidegorriaren garapena. "Udala bide segurtasunagaz eta mugikortasun jasangarriagaz konprometituta dago. Jakin badakigu Traña-Matienan gabeziak eta arazoak daudena, horien artean apartekatu falta, eta lanean gabiltza hori konpontzeko", azaldu du Mikel Urrutia alkateak.

Urtarrilerako ikastaro bi antolatu dituzte Atxondoko KZGunean

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urtarrilerako ikastaro bi antolatu dituzte Atxondoko KZGunean. Lehenengoa Android mugikorren mantentze-lanekin lotuta egongo da. Ikastaro hau lau ordukoa izango da eta urtarrilaren 29an eta 30ean emango dute, 16:00etatik 18:00etara.

Bigarren ikastaroa BAKZ ziurtagiriaren ingurukoa izango da eta ordu bi iraungo du. Urtarrilaren 31n izango da, 16:00etatik 18:00etara.

Ikastaroak liburutegian dagoen KZGunean emango dituzte, eta aurrez izena eman behar da. Izen ematea 94 506 25 55 edo 94 682 10 09 telefonora deituta edo liburutegia@atxondo.eus helbidera idatzita egin daiteke.

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA 

MATRIKULAZIO EPEA
otsailaren 7tik 23ra

**ATEAK ZABALIK
JARDUNALDIA,**
urtarrilaren 27an
goizean zehar

ESKAINTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleanitz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasoikoa eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus



Elizosteko urbanizazioa egitea eta hainbat eraikinetan biomasa bidezko berokuntza ipintzea, inbertsio nagusiak Otxandioko aurrekontuetan

lazio urte amaieran, EH Bilduk eta EAJk aho batez onartu zituzten 2024ari begirako Otxandioko aurrekontu orokorrak

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Abendu amaieran, 2024ari begirako aurrekontuak onartu zituzten Otxandion. Aho batez onartu zituzten, EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin.

Zenbateko osoa 3.178.665 eurokoa da. Inbertsioen atalean bi nabarmentzen dira besteen gaitetik, zenbatekoari erreparatuta. Alde batetik, 115.000 euroko diru atala gorde dute Elizoste inguruko urbanizazioaren lehenengo fasea egiteko. Hain zuzen ere, Sorginestrada kalea eta Zine Zaharreko orubetik Ospital kalera dagoen tartea urbanizatuko dute, etxebizitzaren blokearen obra datorren urteko bigarren zatian hasia aurreikusten dutelako. Elizosteko urbanizazioaren hurrengo faseak etxebizitza blokeen eraikuntza amaitzen denerako uzteko asmoa dute. Beste inbertsio handi bat eraikin publikoak diren udaletxe, gaztetxe eta nagusien egoitzako berokuntza sistema aldatzea da, jasangarriagoa den biomasa bi-

dezko bategaitik. Proiektu hori egiteko, 301.000 euroko diru atala gorde dute aurrekontuetan.

Aurten gauzatu gura dituzten beste hainbat inbertsio ere badaude, zenbateko txikiagoak. Esaterako, 20.000 euro gorde dituzte eremu industrialeko partzela batean komunitate energetikoak behar dituen azpiegiturak egiteko. Aurreko urteetan legez, aurten ere merkataritza sustatzen jarraituko dute, 25.000 euroko atalagaz. Beste inbertsio bi honako hauek dira: kultur ekipamenduak erostea (17.000 euro) eta lurretako inbertsioak egitea (30.000 euro).

Diru laguntzen barrukoak

Inbertsioetan, hiru diru atali loturiko proiektuak egitea diru laguntzen menpe dago: laguntzak lortzen badira aurrera eramango dira, eta bestela ez. Hiru egitasmoetarako diru laguntzak eskatuta daudela zehaztu du Egoitz Garmendia alkateak. Proiektue-



Aurrekontuak abenduaren 28ko udalbatzarrean onartu zituzten.

Merkataritza sustatzeko eta komunitate energetikoko azpiegiturei begirako diru atalak ere badaude

tariko bat udaletxean igogailua egitea da (97.000 euro). Bigarren proiektua herri argiteria aldatzea da, efizienteagoak diren argiekin (35.000 euro). Azkenik, Otxandio-ko eskolako leihoak ere aldatu gura lituzkete, 35.000 euroguz.

Inbertsioen ataletik kanporako diru kontuei dagokienez, kultur jarduerak sustatzeko diru atala eta euskararen arlokoa, besteak beste, handitu egin dituzte, udaleko arduradunek zehaztu dutenez.

20 bat gaztegaz, urte berriari ekin dio Mañariko Artatzagan pilota taldeak

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Artatzagan pilota taldeak 20 bat gaztegaz hasi du 2024. urtea. Adin guztietako pilotariak dituzte, kimu mailatik hasi eta nagusien mailaraino. Aurreko urteetako antzerako kopurua da. Hori bai, aurten neska bakarra dute, pilota taldean zebiltzan neska

batzuek beste kirol baten aldeko apustua egin dute eta. Martitzen eta eguenetan entrenatuko dira, Mañariko pilotalekuan, Miguel Azkune pilotari ohia kirol prestatzaile dutela. Klubeko presidentea Juan Luis Alberdi da. Urtean zehar gazteen arteko torneoak antolatze-ko asmoa dute, herrian esku pilo-

tagazko zaletasuna bultzatzeko. Aurkezpenean eskerrak eman zizkieten udalari eta babesleiei euren laguntzagaitik. "Garrantzitsua da Mañariak diziplina honetako klub bat izaten jarraitzea. Babesleek umeen ilusioa gauzatzen eta Mañariaren izena zabaltzen laguntzen digute", esan zuten.



Artatzagan klubeko pilotari eta kideen familia argazkia.

Areto futbolean eta saskibaloian dabilzan umeentzako partiduak Mallabian, domekan

MALLABIA • J.D.

Mallabia Kirol Elkarteak dabilzan gaztetxoek hainbat kirol egiteko aukera izaten dute urtean zehar. Areto futbolean eta saskibaloian dabilzanek ikasirikoa praktikatzeko aukera izango dute domeka honetan, pilotalekuan partiduak anto-

Aurrera begira, maiatzerako, Mallabia Kirol Elkarteak kirol bien inguruko torneoak antolatuko du

latu dituzte eta. Batetik, areto futbolean dabilzan umeek -2016tik aurrera jaiotakoek-Zaldibarko Zalduren kontra jokatuko dute, 10:30ean. Ondoren, 11:30ean, 2012tik aurrera jaiotako umeentzako minibasket triangularra jokatuko dute Mallabiak, Elorriok eta Ermuak. Aurrera begira, maiatzerako, kirol elkarteak kirol bietako torneo bat antolatuko du.



Herriguneko espaloia zatia guztiz amaituta dagoela hasi dute urtea Izurtzan

IZURTZA • J.D.

Iazko urri hasieran espaloia egiten hasi ziren Izurtzako herriguneko alde batean, eta dagoeneko amaitu dute. Horrela, herriguneko alde bietan espaloia dutela hasi dute urtea izurtzarrek. Izurtza oinezkoentzat atseginago eta seguruago bihurtzeko egitasmoaren barruan gauzatu du proiektuak udalak. Egitasmoak 132.000 euroko inbertsioa eskatu du. Eurretari 60.000 euro Bizkaiko Foru Aldunditik jasoriko diru laguntza baten bitartez estali dituzte. Azken urteetan hainbat neurri hartu dute oinezkoiei begira; hala nola 2022tik zazpi semaforo martxan daude ibilgailuen gehiegizko abiadura gutxitzeko.

Oraindik ez zara ANBOTOk whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken albisteak jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali 'ALTA'

688 635 041

telefono zenbakira

* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto



anboto
kide

Anbotokideen txokoa


URTARRILEKO ZOZKETAK



Andereño
txotxongilo ikuskizunerako sarrera bikoitza. Urtarrilaren 21ean, San Agustinen.



Familia sarekada
antzerkirako sarrera bikoitza. Urtarrilaren 26an, Arriolan.



Xiberu tabernan
bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.



Lezaun upategira bisita eta bazkaria bi pertsonentzako. Otsailaren 25ean.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Gazteentzako psikobonuak banatzea erabaki dute Zaldibarko aurrekontu parte-hartzaileetan

Abenduaren 19ko herri batzarrean erabaki zuten 25 proposamenetatik zeintzuk gauzatzeko diren

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko herritarrek aurrekontu parte hartzaileen bitartez egingo diren lau proiektuak aukeratu dituzte. Jasoriko proposamen bideragarrien artean, egingo diren laurak erabaki dituzte zaldibarko herritarrek. Hauek izan dira botorik gehien jaso duten proiektuak: Kurutzezar eta Solonagusia etxebizitzetatik haur eskolara bidea seguru egitea (59 boto), Olazar merenderoko mahaietan aterpea ipintzea (42 boto), gazteen-

tzako psikobonuak banatzea (42 boto), eta udaletxeko plazan jesarleku gehiago ipintzea (38 boto). "Guretzat oso garrantzitsua da herritarrek aurrekontuetan erabakitze eskubidea izatea", azaldu du Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkateak. Iazko abenduaren 19an eginiko herri batzarrean aukeratu zituzten lau proiektu hauek. Zaldibarko Udalak 25 proposamen jaso zituen guztira. Udalak 200.000 euro ipiniko ditu proiektu horiek egiteko.



Zaldibarko Euskal Herria kalea.

Zaldibarko Berbalagunen izena emateko bigarren deialdia, zabalik

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko Berbalagunak ikasturte honetako izen emate kanpainaren bigarren zatia hasi du oraintsu; beraz, jada martxan dauden taldeetara batzeko edo mintzapraktika talde berriak sortzeko aukera zabalduko dute. Ikasturte honetan, Zaldibarko Berbalagunak hiru talde ditu martxan, bi talde arratsaldean eta beste bat goizean. Arratsaldeko taldeetarikoa bat martitzenetan biltzen da, Sorgin tabernan, 18:00etan, eta bestea eguenetan, 16:15ean, Karobi tabernan. Goizeko taldea martitzenetan batuko da, 09:30ean, Talka tabernan. Talde hauek kafe bat hartzeko batzen dira, baina antolatzaileen esanetan posible da beste espazio batzuk sortzea edo proposatzea. "Zaletasun berdina duten kideekin talde berriak sortu gura ditugu, zaletasunak partekatuz euskaraz berba egiteko espazio ezberdinak sortuz", azaldu dute. Irailean hasi zuten ikasturtea, eta ordutik hainbat ekintza egin dute mintzapraktikako taldeek: mintzodromoak, Durangoko Azokara irteera eta ardo dastatzak, besteak beste. Izena emateko, Berbalaguneko kideek www.mintzalaguna.eus ataria ipini dute martxan.

Sahararen aldeko Elkartasun Karabanarako elikagai bilketa hasi dute Berrizen

Durangaldeko Río de Oro elkarteak bultzatu du ekimen solidarioa eta urtarrilaren 20ra arte iraungo du



Berrizko dendetan jasoko dituzte produktuak.

BERRIZ • A. M.

Beste urte batez, Sahararen aldeko Elkartasun Karabana Berrizera helduko da. Durangaldeko Río de Oro elkarteak bultzaturiko ekimen solidarioak Berrizko Udalen eta Berrizko Udal Kontseiluaren laguntza izango du, gainera. Urtarrilaren 8an ekin zioten herritarrek emaniko produktu eta elikagaiak batzeari, eta urtarrilaren 20ra bitartean egongo dira horretan. Elkarteak Berrizko saltokietara elikagaiak eta higiene produktuak eramateko deia egin die herritarrei; batez ere, higiene produktuak, lekaleak, atun eta sardina latak, oliba olioia eta konpresak eramateko eskatu dute. Horrez gainera, udal ordezkariak horrelako ekimenek duten garrantzia nabarmendu gura izan dute. "Horrelako ekimenekin, herritarren lankidetzaren garrantzia azpimarratu gura dugu, eta berriztarrei ekimenagaz bat egiteko deia egiten diegu", azaldu dute ohar baten bitartez.



Azpiegitura berria frontoiaren eta bolatokiaren arteko eremuan egin gura du udalak.

Kirola egiteko erabilera anitzeko espazioa eraikiko dute Garain

Egitasmoak Aldundiaren sostengua jaso du; guztira, 133.000 euroko diru laguntza

GARAI • JONE GUENETXEA

Garaiko udalak 2024ko aurrekontua onartu du. Udal arduradunek azaldu dutenez, aurrekontuak ezohiko hazkundea izan du. Izan ere, 2023ko aurrekontuaren zenbatekoa 621.262 eurokoa izan zen, eta 2024koa 828.670 eurokoa izango da. Ondorioz, heren bat haziko da. Udal arduradunek esan dute erabilera anitzeko espazioa eraikitzeke egitasmoak ekarri duela aurrekontua haztea. Kirola egiteko gunea ere izango da eta San Migel auzoan egingo dute, bolatokiaren eta frontoiaren artean. "Ekipamen-

du txiki horren bitartez, udalak, nagusien artean zahartze aktiboa sustatu ez ezik, herritarrei kirola egin ahal izateko erraztasunak ere eman gura dizkie Garain bertan. Egitasmo horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren sostengua jaso du; guztira, 133.000 euroko diru laguntza".

Era berean, Garaiko Udalak, herritarrek mugikortasun arloan dituzten zailtasunei aurre egin ahal izateko, Garaiko Taxi Auzunea martxan ipintzea erabaki du. Zerbitzu hori bestelakoa izango da eskualdean martxan daudenekin

alderatuta. Izan ere, zerbitzuaren bitartez, Garaiko herritarrek Berrizera, Abadiñora, Iurretara eta Durangora joateko modua ere izango dute. Inoren premiarik izan barik, udalak osasun zerbitzuetara, beste garraio zerbitzuetara, hainbat gestio egitera eta institutura joateko aukera eskaini gura die herritarrei.

Aurrekontuekin segituz, gaur egun esku pribatuetan dagoen 100.000 metro koadroko azalera herri baso bihurtzea aurreikusita dago 2024an. Horiek horrela, aurreko agintaldian hasitako bidean "sakondu" gura du udalak.

San Sebastian jaiak ate joka daude Bakixa auzoan

Datorren egueanean jasoko dute Doniel Atxa Iurretako auzoan



lazgo San Sebastian jaietako irudi bat

IURRETA • AITZIBER BASAURI

San Sebastian jaiei ondoetorria emateko prest daude Iurretako Bakixa auzoan. Datorren egueanean jasoko dute Doniel Atxa, 19:00etan, eta astebururako hainbat ekitaldi antolatu dute. Tartean, Bakixako Danborrada.

Maiztegiko dantza taldearen saioa, jolasak, igel txapelketa eta mus arin txapelketa antolatu dituzte urtarrilaren 19rako. Urtarrilaren 20an, bestalde, San Sebastian Eguna ospatuko dute. Meza eta herri kirol erakustaldia egongo dira, eta, herri bazkariaren ondoren, *Gora bihotzak!* (Antxo eta Pantxa) ikuskizunaz gozatzeke aukera egongo da. Iluntzean tortilla txapelketa hasiko da, eta gauerdiko danborrada hasi baino lehenago, gau giroa berotzeko ardura izango du DJ Txululuk. Domekan, Iurretako Mikel Deuna dantza taldearen erakustaldia eta musikaz eta dantzaz giroturiko herri bazkaria egongo dira.

Gazteak eta euskara aztergai 'Zeresana' dokumentalean

16-17 urte bitarteko gazteen bizipenak jaso dituzte

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Mankomunitateak eta Berbarok *Zeresana* dokumentala aurkeztu dute, eskualdeko gazteek euskaragaz duten hartu-emanak aletzen duen ikus-entzunezkoa. Institutuekin eta ikastetxeekin izandako bitartekaritzari esker, eskualdeko 16-17 urterako hainbat gazteren testigantzak batu dituzte. Filmazio lanetan Berbaroko kideek eta

profesional batzuek parte hartu dute. Mankomunitateko presidente Idoia Otaduyk hauxe esan du: "Asko berba egiten da gazteen hizkuntza ohiturez, baina ez dugu gazteek diotena entzuten. Dokumental honetan gazteak berbetan ipini gura izan ditugu. Eta gauza asko dute esateko". Ikus-entzunezkoa *anboto.org* atarian dago. Ordu erdiko iraupena du, gutxi gorabehera.



Dokumentala *anboto.org* atarian dago ikusgai.

ANDRAMARI
IKASTOLA

ikastola

TXIKIAK HANDI EGITEKO HEZKUNTZA OSOA

Otik 18 urtera arte

ATEAK ZABALTZEKO EGUNA URTARRILAREN 20an 11:00etan

2024-2025 MATRIKULAZIOA: OTSAILAREN 7tik 23ra arte

BISITA PERTSONALIZATUAK eta informazio gehiago

0 eta 1 URTEKO MATRIKULA URTE OSOAN ZABALIK

946732950 | zornotza@ikastola.eus | www.andramarizornotzakoiakastola.eus

Hirukoa lehiaketaren bosgarren edizioa urtarrilaren 19an jokatu da, Plateruenean

Hirukoa lehiaketan hiru laguneko taldeak osatu beharko dituzte. Berbarok lehiaketan izena emateko epea zabaldu du



lazko edizioko argazkia.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Berbaro euskara elkarteak Hirukoa lehiaketaren V. edizioa antolatu du urtarrilaren 19rako. Norgehiagoka Plateruena Kultur Aterpean jokatu da, 19:30ean, eta ohikoa den moduan lehiakideek askotariko galdera-erantzunei erantzun eta probak gainditu beharko dituzte, telebistako lehiaketetan legez. Bertan parte hartu ahal izateko, jokalariek hiru laguneko taldeak osatu beharko dituzte, eta lehiaketarako inskripzioa aurrez egin beharko

da. Berbaroko kideek aurreratu dutenez, hirukote irabazleak sari eder bat eskuratuko du.

Kafezaleak irabazlea

Iazko edizioan 18 hirukotek parte hartu zuten eta giro bikaina egon zen. Talde irabazlea Kafezaleak hirukotea izan zen. Parte-hartzaileek hainbat gairi buruzko galderei erantzun behar izan zieten: kultura, musika, geografia, pertsona famatuak eta Durangaldea, beste.

Politikan

Patxi L. Lakunza
Herriaren Eskubidea/
Durangoko
Independentek



Izotz beltza

Durangok izotz pista naturala izan du berriz ere 4 urteren ostean. Pandemia garaian ez genuen pistarik izan eta iaz lurzoru sintetikoaren aldeko apustua egin zen. Baina, hauteskudeen ostean, betiko leloaren betiko leloa.

Eta zelan justifikatu dute Gobernu Taldekoek izotz naturalaren itzulera? Betiko legez: "Jende gehiago erakarriko du, kontsumoa handituko da eta herriko merkatarien irabaziek gora egingo dute. Beste behin ere, epe laburreko begirada eta pedagogia eza. Etengabe haztearen mantra ondo baino hobeto barneratua dute Durangoko EAJk eta PSEk. Ez dakit zer pentsatuko duen Teresa Ribera ministroak.

Hau da erakundeek egiten duten *greenwashing* edo zuriketa berdearen enegarren adibidea. Berdeago Azoka egiten denean irribarretsu eta planetaren etorkizunaz "konprometiturik" agertuko dira argazkian. Baliteke kamiseta berde bat aukeratzea argazkirako. Mugikortasunaren astean bizikleta gehiago erabili behar dugula esango diguten moduan. Ziur aski autoa erabiltzeagatik errieta paternalista egiten diguten bitartean. Koherenteen artean koherenteenak.

Aldaketa klimatikoa inoiz baino errealagoa den honetan; klima ozeanikotik mediterranearrerako bidean gauden unean bertan, izotz naturalaren aldeko apustua egiten du udalak. "Herritarrei ez zitzaien pista sintetikoak batera gustatzen!" Noski, denok dakigu askoz garrantzitsua goa dela kapritxoak asetzeko gizartearen beharrei erantzutea baino.

Durangaldea asteen

Euskal Herriko Kontseilu Sozialista aurkeztu dute Durangon, eta euren proposamen politikoa

DURANGO | Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak (EHKS) bere proposamen politikoa aurkeztu du Durangon. Urtarrilaren 4an egin zuten agerraldia. Bertan, zazpi puntuko programa politikoa aurkeztu zuten: "Bizitzaren garestitzea, gerra, estatu autoritarismoa, ekosistemen suntsiketa, emakume langileen zapalkuntza, autodeterminazioa eta amnistia" izango dituzte lan ildo nagusi.

Argiñolaren energia bulegoa zapatuetan ere zabalik egongo da Elorrion

ELORRIO | Herritarrek gas eta argindar faktura ulertzea eta fakturak aurrezteko aukerak aztertzea helburu duen Argiñola Energia Berriztagarrien Komunitateak bulego ordutegia zabaltea erabaki du. Argiñolako kideek martitzen eta eguenetan zabaltea adostu zuten hasieran, baina hemendik aurrera zapatu goizetan ere zabalduko dute, 10:00etatik 13:00etara.

Jauregizahar auzoa urbanizatzeko lanek sei hilabete iraungo dute gutxi gorabehera

ZORNOTZA | Jauregizahar auzo inguruak itxura berria izango du laster. Zornotzako Udalak argi berdea eman dio proiektuari. 1.300.000 euroko aurrekontuagaz, espazio "inklusiboagoa eta parte hartzaileagoa" sortu gura du. Ainhoa Salterain alkateak azaldu duenez, "jolasguneak eta atsedenekuak integratuz, zornotzarren arteko interakzioa eta kohesioa sustatzeko" balioko du proiektuak.



JAEDen kotxea 25.296 zenbakiak irabazi du, eta bizikleta elektrikoa 00.761ak

DURANGO | JAEDek bere urteroko zozketa egin zuen Errege egunez, eta Andra Mariko elizpean jendetza batu zen zozketa jarraitzeko. Sari nagusia, JAEDen autoa, 25.296 zenbakiarentzat izan zen eta dungar bati egokitu zitzaion. Zenbaki irabazleak www.anboto.org webgunean ikusgai daude.

Bestalde, antolatzaileek jakinarazi dute aurten atera dituzten txartel guztiak saldu dituztela. 70.000, guztira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ESKELAK ANBOTON

75€

946 816 558 • anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.





'Passport'

ANTZERKIA

ELORRIO ETA DURANGO :: Urtarrilak 12 eta 14

Yllana konpainiaren 'Passport' antzezlanak ikusgai Durangaldean

Komedistan izeneko herrialde batean bira artistikoa egiten dabilzan lau komikoren istorioa da *Passport*. Yllana konpainiak azaldu duenez, munduan irribarrea zabaltzeko asmoz biran dabilzan artistei eginiko omenaldia da. Herrialdean sartzeko mugan ipiniriko oztopoak, jabetxe batean hizkuntzagaz sorturiko katramilak eta ostatu hondatu batean lo egin beharra islatzen dira *Passport* antzezlanean. Baita funtzio bat hasi aurretik eta amaitu ondoren

sorturiko tirabirak ere. Azken finean, atzerrian lan egin behar diren bizipenak oholtzaratuko dituzte, 1991n sorturiko konpainiaren esanetan. Asteburuan obra horretaz gozatzeko hitzordu bi egongo dira Durangaldean: Elorrion gaur, 20:00etan, eta Durangon domekan, 19:00etan.

Yllanak 37 obra sortu ditu 31 urteotan, eta 48 herrialdetan 16.000 emanalditik gora eskaini. 6 milioi ikusle inguru izan dituzte guztira.

Urtarrilaren 12an

ABADIÑO ipuinak

'Emeen kemen' (Maider Alcelay eta Igor Sala) helduentzako ipuin kontaketa saioa, 19:00etan, Txanporta kultur etxean.

BERRIZ antzerkia

'Estación Paraíso' (La Maquina konpainia), 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO bisita

'Papera ardatz' erakusketaren (Agustin Ibarrola) bisita gidatua, 19:00etan, Arte eta Historia Museoan. Euskaraz.

IURRETA antzerkia

'Olvido Flores' (Estefanía de Paz), 19:00etan, Ibarretxe Kultur Etxean.

Urtarrilaren 13an

BERRIZ antzerkia

'Almazenean' (Txalo Produksioak konpainia), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

DURANGO kontzertua

Bogoroditsie abesbatzaren kontzertua, 20:00etan, San Frantzisko elizan.

ZORNOTZA kontzertua

Onintze, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA bertsoak

Bertso derbia: Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Alaia Martin, Igor Elortza, Beñat Gaztelumendi eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak abestuko dute, 12:00etan, Zornotza Aretoan. Gai jartzailea: Eta Abar Zornotzako Bertso Eskola. Athletic Club Fundazioak Real Sociedad Fundazioagaz elkarlanean antolatuta.

Urtarrilaren 14an

ABADIÑO azoka

Hileko bigarren domekako azoka, 10:30ean, Txanporta plazan.

DURANGO dantzaldiak

Adinekoentzako dantzaldia, 18:30etik 20:30era, Landako kiroledegian

Urtarrilaren 15etik 26ra bitartean

IURRETA aretoa

Esker oneko jardunaldi literarioak: 'Aliziaren burutazio miresgarriak' areto literarioa, herri bibliotekan. Inaugurazioa urtarrilaren 15ean egingo da, 19:00etan, helduentzako bisita gidatu batez. 2018an sorturiko areto literarioa Itziar Zubizarretak zuzendurikoa da eta Aitziber Alonso da eszenifikazioaren

arduraduna. Helduentzako eta familientzako bisita gidatuak antolatu dituzte.

Urtarrilaren 17an

IURRETA jardunaldia

Esker oneko jardunaldi literarioak: 'Alizia herrialde harrigarrian' haurren irakurle kluba Peru Magdalenak dinamizatuta, herri bibliotekan. LH3ko umeentzat, 17:00etan, eta LH4ko umeentzat, 18:00etan.

Urtarrilaren 19an

DURANGO lehiaketa

Hirukoa lehiaketaren 5. edizioa, 19:30ean, Plateruena Kultur Aterpean.

IURRETA tailerra

Esker oneko jardunaldi literarioak: 'Alizia nobere barruan' arte adierazpen tailerra, Onditz Mendizabalek dinamizatuta, 17:00etatik 18:30era, herri bibliotekan. Sei urtetik gorako umei zuzenduta.

ZALDIBAR ipuinak

'Yogipuinak' Maite Arrese ipuin kontalariaren eskutik, 17:00etan, liburutegi zaharrean.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Urtarrilaren 20an

BERRIZ musika

Bones of Minerva + Embers, 19:00etan, Kultur Etxean.
DURANGO bisita
'Papera ardatz' erakusketaren (Agustin Ibarrola) bisita gidatua, 11:00etan (euskaraz) eta 12:00etan (gaztelaniaz), Arte eta Historia Museoan.

ZORNOTZA antzerkia

'Shalott' (Guillem Batlle i Vlad Ion konpainia), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Urtarrilaren 28ra bitartean

DURANGO erakusketa

'Papera ardatz' (Agustin Ibarrolaren artelanak), Arte eta Historia museoan.

Urtarrilaren 31ra bitartean

ELORRIO erakusketa

'Dronegrafiak - Begirada hegalaria' erakusketa (Santiago Yaniz), Iturrin.

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• *El maestro que prometió el mar*

barikua 12: 19:30
domeka 14: 19:00

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• *Valle de sombras*

barikua 12: 18:30 / 21:00
zapatua 13: 17:00 / 19:00 / 21:30
domeka 14: 17:00 / 19:30
astelehena 15: 17:45 / 20:15
martitza 16: 17:45 / 20:15
eguaztena 17: 19:00

• *Beekeeper. El protector*

barikua 12: 18:30 / 21:00
zapatua 13: 19:30 / 21:30
domeka 14: 19:30
astelehena 15: 18:00 / 20:15
martitza 16: 18:00 / 20:15
eguaztena 17: 19:00

• *Bizkarsoro*

barikua 12: 18:30
domeka 14: 19:30

• *La memoria infinita*

zapatua 13: 19:30 / 21:30
astelehena 15: 18:00 / 20:15
martitza 16: 18:00 / 20:15

• *Thabo y el caso de rinoceronte*

zapatua 13: 17:00
domeka 14: 17:00

• *Migrazioa. Bidaia ahaztezina*

zapatua 13: 17:00
domeka 14: 17:00

:: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

• *Fallin Leaves*

zapatua 13: 20:00
domeka 14: 20:00
astelehena 15: 20:00

• *Udalatx, ura eta atxa*

eguna 18: 19:00

• *Wish: el poder de los deseos*

domeka 14: 17:00

:: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

• *Los juegos del hambre: Balada de pájaros cantores y serpientes*

barikua 12: 20:00
domeka 14: 20:00
astelehena 15: 20:15

• *Teddy*

domeka 14: 17:00

• *La imatge permanent (JBGA)*

martitza 16: 20:15

San Antonio jaiak 2024

Urtarrilak 12, barikua

19:30 XVII. San Antonio pilota txapelketa.
Eskuzko finalurrekoak. Olakueta frontoian.

Urtarrilak 13, zapatua

19:00 'Almazenean' antzerki obra. Kultur Etxean.
19:30 XVII. San Antonio pilota txapelketa.
Eskuzko finalurrekoak. Olakueta frontoian.

Urtarrilak 14, domeka

10:00 Berriz MTB martxa.

Urtarrilak 16, martitzena

19:00 Kalejira Bentazarreko Mutiko Alaiak
taldeagaz. Olakueta.
19:30 Donien Atxa altxatzea Olakueta plazan.

Urtarrilak 17, eguaztana

12:30 Meza Antonio Deunaren basilizan.
19:30 Kontzertua: El Nido taldearen 'Refugios a
cielo abierto'. Antonio Deunaren basilizan.

Urtarrilak 19, barikua

17:00 Mendi erronkaren sari banaketa. Kultur
Etxean. (Antolatzaileak: Amaraune eta Berrizko
Udala).**19:00 Sagardotegi ibiltaria eta odoloste jana,**
Olakueta plazan.**19:30 XVII. San Antonio pilota txapelketa.**
Eskuzko finalak. Olakueta frontoian.

Urtarrilak 20, zapatua

12:00 Txintxeta, Klipa eta Txorroskiloa pailazoan
'Atxis' obra, Olakueta frontoian.**18:00 Erromeria Luhartz taldeagaz,** probalekuan.
19:00 Kontzertua: Bones of Minerva, Kultur
Etxean

Urtarrilak 21, domeka

11:00 Eskualdeko barazkien eta fruituen XLII.
Erakusketa, probalekuan.**12:00 Baserriko txerri-burualde dastatzea,**
Olakueta plazan.**12:30 Meza** Antonio Deunaren basilizan.
Ondoren, Iremini eta San Lorentzo dantza
taldeen erakustaldia.**19:00 Urban dance: Feeling the vibes,** Kultur
Etxean.

Urtarrilak 22, astelehena

17:00 – 19:00 Barrakak merkeago.**19:00 Nekazaritza olimpiadak,** Olakueta frontoian.
Ikuskizuna, txorizo ogitartekoak eta edaria,
amaitu arte.**Gurrutxagak eta Galartzak
Berriz bisitatuko dute,
'Almazenean' antzezlanagaz**

San Antonio jaietako egitarauaren barruan antzezlan berria taularatuko dute bihar, urtarrilak 13, Kultur Etxean

JAIK • AITZIBER BASAURIErretiroa hartzeko dagoen arduradunak eta bere lanpostuan ordezkatuko duenak, ezinbestean, bost egunez lantokia partekatuko dute, itxuraz ezer gertatzen ez den almazenean huts batean. Horixe du ardatz Txalo Produkzioak konpainiaren *Almazenean* obra berriak, Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga protagonista dituela.

David Desola idazle katalanak sorturiko komedia zorrotz eta garratz honek lan munduan pairatzen den esplotazioaz eta

kapitalismoaz hausnartu gura du. Horretarako, erlojuaren tik-tak okerra, ezezagun biren arteko isilune deserosoa, itxaroten egotearen amorrazioa, pertsonaia biren arteko gatazka eta gezur handi baten zama baliatuko ditu. Baldintza horietan, langile bien arteko hartu-emana estutzen joango da eta amankomunean daukaten zera horrek lotuko ditu betirako: galtzaileen kontzientziak. Antzezlan honek Hermanos Machado Saria jaso zuen. Berrizko Kultur Etxean taularatuko dute, bihar, 19:00etan.



Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartza.

HIERRROS
HR IEZU S.A.
burdinak
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131 - Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net

Zengotitabengoa kalea,
BERRIZ 946 824 215Produktu ekologikoen
eskaintza

www.berriz.eus

Antonio Deuna Jaiak

Berriztarrek zer kantatu ugari izango dute urtarrilaren 16an, Bentazarreko Mutiko Alaiak taldearen kalejiragaz

Musika talde gipuzkoarrak kalejira egingo du Olakuetan, 19:00etan. Euskal kanta ugari interpretatuko dute

BERRIZ • EKAITZ HERRERA

Jaietako giro saltseroan barnera-
tzeko ordua dute berriztarrek. Eta
eztarriak berotzekoa ere bai. San
Antonio jaietan izango duten es-
kaintza musikalak, behintzat, ho-
rretarako arrazoi bat baino gehiago
eskainiko die eta. Jaietako gatzak eta
piperra Bentazarreko Mutiko
Alaiak taldeak ipiniko du, urtarrila-
ren 16an, Donien Atxa jasoko duten
egunean bertan. Musika talde gi-
puzkoarrak eztarria urratu beha-
rean ipiniko ditu berriztarrek kan-
tuan. Taldeko Iñigo Peñagarikano
abeslariak azaldu duenez, "euskal
kantutegiaren errepaso" egingo
dute kalejiran zehar. Mixel Labe-
guerieren euskal kantagintzaren
sasoitik honako kantak interpreta-
tuko dituzte, "azken 30 edo 40 urte
hauekoak", gutxi gorabehera.
Eta hori guzti hori berriztarrekin
partekatze asmoz, kantu libu-
ruxkak banatuko dituzte.

Formula sinple bezain eraginko-
rra, Bentazarreko Mutiko Alaiak

baliagarri zaiena. Peñagarikano-
ren berbetan, "gauza sinpleekin
arrakasta handia" lortu daitekeen
erakusgarri. Taldeak ia hamarkada
biko ibilbidea du bizkarrean, eta
azken urte hauetan 40-50 emanaldi
egin ditu urteko, Euskal Herriko
luze-zabalean. Nahikoa dute esku-
soinua, gitarra bat, baxua, biolina,
txirula eta ahotsa jendea kantuan
ipintzeko. "Izugarri disfrutatzen
dugu eta iruditzen zait hori mirari
txiki bat dela. Euskal herritar asko-
rentzat kantua bere bizitzako zati
da eta zati izan da. Modu batera edo
bestera, atxikimendu hori mantenu-
du nahi dutela ikusten dugu", esan
du Peñagarikanok.

Momentu "berezia"

Olakuetan egingo duten emanal-
diari dagokionez, Peñagarikanok
adierazi du "benetan berezia" iza-
ten dela Donien Atxa jasotzeko une
hori. "Tabernaz taberna musika
jotzen ibiltzea Donien Atxa eta
guzti oso berezia izaten da", esan



Bentazarreko Mutiko Alaiak.

**"Tabernaz taberna
musika jotzen ibiltzea
Donien Atxa eta guzti oso
berezia izaten da"**

du. Alde horretatik, euren kaleji-
ran parte hartzeko deia egin die
berriztarrei.

Bentazarreko Mutiko Alaien
kalejira 19:00etan hasiko da, Ola-

kuetatik. Gero, 19:30ean, bertako
auzotarrek Donien Atxa ipiniko
dute plazan. Berrizko beheko jaiak
urtarrilaren 22an amaituko dira,
nekazaritza olinpiadekin.

Ibai Ondo

Ferreteria · Burdindegia

Iturriza, 10
946 824 489
f 946 824 489
ferreteriaibaiondo@gmail.com
BERRIZ

Iturriza kalea, 9
Tel: 946 824 009
48240 BERRIZ

TORNILLERIA AMEZUA S.A.

www.tornilleria-amezua.com

ETXEBARRIA

ESTANKOA

Iturriza, 14
Tel./Faxa: 946 827 958
BERRIZ

pedrojuanena

JATETXE-ERRETEGIA

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

Julia Arraindegia

Zengotitabengoa 2,
behea · Berriz
☎ 675 187 957

GAER

DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak
eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

keinu

OPTOMETRIA ZENTROA
PSE: 162/13











Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com



SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.




DIFERENTZIAK

Topatu zazpi diferentziak.



ZENBATU

Zenbat daude lau objektu hauetako bakoitzeko?



SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.



“Fikziozko herri batean kokatuta, errazagoa da denon herrietan kokatzea; Bizkarsoro edozein euskal herri txiki izan daiteke”

Durangoko euskalgintzagaz elkarlanean, 'Bizkarsoro' emanaldiak antolatu dituzte Zugaza zineman; gaur eta domekan izango dira saioak



Josu Martinez Martinez
Zinemagilea
BILBO | 1986

ZINEMA • ARITZ MALDONADO

Josu Martinez zinemagileak (Bilbo, 1986) XX. mendean euskarak eta euskaldunek jasandako errepresioa hizpide duen 'Bizkarsoro' filma dakar. Asmatu herri batean kokatu du istorioa, eta, fikziozko herri batean kokatuta egon arren, benetako istorioak ditu oinarri. Zinemaldian estreinatu eta gero, herririk herriko biderei ekingo dio gaur; besteak beste, Durangoko Zugaza zineman emango dute, gaur (18:30ean) eta domekan (19:30ean).

Gogotsu zaudete gaurko estreinaldirako?

Gogotsu gaude jendeak ikusi dezan, pelikula herritarren esku uzteko, eta gaiari buruz berba egiten hasi dadin. **Herrietako euskalgintzako kideen babesagaz egingo dituzue aurkezpenak. Filma bera modu herritar batean egin duzuela diozue. Hori islatu gura izan duzue aurkezpenetan?** Film hau euskarazko jendearen film bat da, eta egiteko modua ere horrelakoa izan da. Euskarazko

film gutxi egin da, eta geroago eta gutxiago egiten da. Kameran aurrean euskaraz gutxi entzuten da, baina atzean oraindino gutxiago. Horregaitik, ondo aukeratu gura izan dugu lantaldea, dena euskaraz egin ahal izateko, baina ez hori bakarrik; hegoaldeko eta iparraldeko teknikariak elkarrengaz ipini ditugu. Bestalde, eta euskaldun jendearen zapalkuntza kontatzen duen filma denez, gure aliatuak diren euskalgintzako kideek aurkezpenetan egon behar

dutela iruditzen zaigu, euren filma ere badelako.

Nondik dator filma sortzeko ideia? Orain bost urte hasi ginen, urtean istorio txiki bat grabatuz. Bernardo Bertolucci zine zuzendari italiarrak *Novecento* pelikulan egin zuen moduan egin dugu; hau da, XX. mende osoan zehar Italiako herri txiki batean izan zen langile mugimenduaren eta burgesiaren arteko borrokaren garapena kontatzen du Bertolucik, eta iruditu zitzaidan polita izango zela euskarak eta euskaldun jendeak izandako garapena kontatzea. Azken finean, oso gauza arraroa da hainbat herri 80 urtean izan duten bilakaera: ia euskaldun elebakar izatetik, herrian euskaldunak gutxiengoa izatera pasatu dira. Eta hori zelan eta zergaitik gertatu da? Ematen du ezinbestean gertatu behar zen zerbait dela, mundua aldatzen dabilelako, ia fenomeno meteorologiko bat balitz legez. Mende hasieran Unamunok esan zuen moduan, euskara egundoko altxorra da, baina hobe dugu abandonatzea. Nik, irudien bitartez, hori ez dela horrela demostratu gura izan dut. Erabaki administratibo eta politiko batzuen ondorioa da. Koldo Izagirrek idatzi zuen moduan, euskara noizbait hiltzen bada, gorpuak artseniko arrastoak izango ditu.

Bost istorioek osatzen dute pelikula. Herri berean gertatu diren bost istorio dira, hainbat belaunaldi batzen dutenak. Istorioek lotzen dituzten hariak dituzte, izan familia, pertsonaiak, egoerak... Aldatzen doaz, baina unibertso bat osatzen dute. Errepikatzen diren leku, pertsonaia eta istorioak daude, eta horrek batasun bat ematen dio filmari.

Fikzioa lantzen duzun lehenengo aldia da. Gustura aritu zara?

Gustura, bai. Orain artean dokumentaletan aritu naiz, baina honek ere dokumentaletik asko duela esango nuke. Alde batetik, gauza gutxi dira asmatuak. Egiazko istorioak dira oinarriak daudenak, ahozko edo idatzizko lekukotzetatik jaso ditudanak, gero zelan edo halan fikziozko istorio horietan kontatu ditudanak. Bestetik, herritarrek eurek kontatzen dute euren istorioa, eurek interpretatzen dute euren mundua, edo euren gurasoena edo aitita-amamena, eta horrek ere hurbildu egiten du istorioa errealitateara. Egiteko moduak asko du dokumentaletik. Bestal-

de, fikzioa kontatu gura nuen, beste indar bat duelako jendearengana heltzeko, eta euskararen zapalkuntzaren istorioa ahalik eta jenderik gehienarengana heltzea gura nuen. Horrek errealitateari estuki ez lotzeko aukera eskaintzen du, izan ere, Baigorri grabatuta dagoen arren, ez nuen Baigorriko istorio bat kontatu gura. Existitzen ez den herri batean kokatuta, denona izan daitekeen herrian kokatu daiteke. Harkaitz Canok dioen moduan, fikzioak, errealitateak ez bezala, koherentzia mantentzea eskatzen dizu. Errelato koherente bat eraikitzen ahalegindu naiz, askeago ibiltze-

Oso arraroa da hainbat herri 80 urtean izan duten bilakaera: ia euskaldun elebakar izatetik, herrian euskaldunak gutxiengoa izatera pasatu dira

Herri berean gertatu diren bost istorio dira, hainbat belaunaldi batzen dutenak. Istorioek lotzen dituzten hariak dituzte, izan familia, pertsonaiak...

ko. Bizkarsoro edozein euskal herri izan daiteke. Horrela, Durangaldeko herritarrek ere euren burua islatuta ikusiko dute protagonisten edo egoeren bitartez. **200 herritarrek baino gehiagok parte hartu dute grabazioan. Ez zen erraza izango hori koordinatzea.**

Batez ere, egiteko modua izan da desberdina. Urtean istorio bat grabatu dugu, eta, alde horretatik, igartzen da auzolana. Film luze bat egiteko behar den aurrekontuaren hamarrena erabili dugu gutxi gorabehera, eta denbora aldetik ere berdina, sei astean egiten dena guk bitan egin dugu, bost urtetan banatuta. Lan egiteko modu hau oso gozoa egin zait, izan ere, herria denerako egon da prest. Herritarrei eskerrak, berez milaka euro balioko zuen lana atera dugu aurrera.



Koldo Bilbao zinegotzia eta Alex Gerediaga zuzendaria.

Adin guztietako zornotzarrak erakartzeko egitaraua aurkeztu dute Zornotza Aretoan

Antzerkia izango da denboraldiko protagonista nagusia; bederatzi emanaldi aurreikusi dituzte

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Zornotza Aretoak ekainera bitarteko egitaraua aurkeztu du aste honetan. "Adin guztietako zornotzarrak erakarri eta entretenitzeko diseinatuta dago programa, antzerkia, musika eta dantza barne hartzen dituena, udalerrian bertan bizitza kultural aberatsaz gozatzeko aukera emanez", azaldu du Koldo Bilbao zinegotziak. Antzerkia izango da egitarau horretako protagonista, izan ere, bederatzi emanaldi egongo dira; besteak beste, Tau-

lelak konpainiaren *Euskaldungak*, Metrokoadrokaren *Zeozertan dabil baina ez dakit zertan*, eta Fundación Siglo de Ororen *La dama boba*. Musika aldetik, Karla Silvaren eta Txuma Murugarrenen emanaldiak azpimarratu dituzte, baita Zornotzako bandak egingo dituen kontzertu biak ere.

Entseguak, Zornotzan

Agerraldian Khea Ziaterrreko Alex Gerediagak ere parte hartu zuen. Hain zuzen ere, otsailaren 2an *La sed del minotauro* estreinatuko

dute, konpainiaren lan berria, Arriaga antzokian. Zinemak Khea Ziaterrren jardunean duen eragina azpimarratu du Gerediagak: "Zinemako kodeak antzerkikoekin uztartzen ditugu. Lan honetan nabarmena da 90eko hamarkadako zinemaren eragina; adibidez, modu batera edo bestera, Coen anaiena ta David Lynch zuzendariarena". Lana borobiltzeko, konpainiako kideak Zornotza Aretoan dabilta entseatzeko. Martxoaren 1ean taularatuko dute antzezlan Zornotzan.

'Olvido Flores'-ek hasiko du Antzerkia Bultzatuz

'Olvido Flores' antzezlanaren estreinaldia izango da gaurkoa; 19:00etan izango da, Ibarretxe kultur etxean

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Aurtengo Antzerkia Bultzatuz Iurretako antzerki zikloak bederatziz emanaldi izango ditu. Ohikoa den moduan, familia osoarentzat eta helduentzat diren antzezlanak eskainiko dituzte, tartekatuta. Lehenengoa gaur izango da, *Olvido Flores*. Estefanía de Paz antzezlearen azken obraren estreinaldia izango da gaurkoa; 1936ko uztailan Lodosan (Nafarroa) gertaturikoen lekukotzak batu ditu istorio honetarako. Emanaldia 19:00etan

hasiko da. "Gaur egun kultura doan edukitzea zaindu eta baloratu egin behar da", azaldu du Zorione Fundazuri zinegotziak. Antolatzaileak pozik daude ekimenak eginiko ibilbideagaz. "Herritarrek ohitura hartu dute kultur etxera etortzeko bariku arratsaldeetan egiten diren emanaldietara", gehitu du Pili Jimenez teknikariak. Emanaldiak doakoak izango dira; hala ere, aurretik gonbidapenak eskatu behar direla jakinarazi dute antolatzaileek.



Pili Jimenez, Zorione Fundazuri eta Charo Pradejas.

Gai librea

Hiru hiru

Konturatu gabe eman diogu beste itzuli bat eguzkiari. Horrela hasi nuen duela urtebete Anboton idatzitako lehenak. Eta hemen gaude, bai zu eta bai ni, urtebete gehiago aldean, urtebete zaharrago. Jesu Kristoren adina deitzen zaiona beteko dugu urte berri honetan laurogeita hamaikan jaiotakook. Dena ondo bedi, bizitzaren herena pasata. Zimur batzuk gehiago, begi zuloak sarriago eta ilea urdintzen. Batzuek jada azken hau galdu badute ere. Hogeita hamahiru urte. Hiru hiru. Bizi zikloen dantzan, batzuen begiz heldu, beste batzuenetan ordea gazte. Beti gazte.

Aroz marraztua dago bizitza. Etapa bakoitzak bere denborak ditu, nahiz eta hauek ere moldatzen diren, edo aldatzen dituzten. Boomer txikle bat bezala luzatu eta zabaltzen ari dira sasoi



Ainhoa Zabarte Narbaiza Behargina

Beti gaztea izatea zer ote da? Adinaren kontrako borroka? Heldutasunari beldurra?

batzuk, gaztetasuna kasu, eta aro batetik bestearekiko alde gehiago zikintzen, nahasten.

Kategoria sozial handia du gaztaroak, gaztetasunak, gazteak. "Gu gazteiek ga" entzun ditut berrogeiak aspaldi pasata dituztenak ere. Gaztea denak zein ez denak, denek nahi dute gazte izan. Aldiz, norbaiti buruz hitz egiterakoan pertsona zaharra dela esatea ez dago begiz ondo jota batzuetan. Hala dator gero paternalismo hutsetik "gure zaharrak" eta hauen infantilizazioa.

Gaztetasunari mugak jartzea gero eta konplikatuagoa da. Gazte izatea, batzuen aburuz adin kontua baino jarrera

kontua da, sentimendu bat. Lotzen da indarrarekin, edertasunarekin, dena posible ikustearen ilusioarekin, borrokaarekin. Beti gazte izatea zer ote da? Adinaren kontrako borroka? Heldutasunari beldurra? Gazte izatearen nahiak, baina, ahaztu egiten du gazteen bizi egoera prekarioa. Hauen lan baldintza txarrak, etxebizitza arazoak eta abar luze bat.

Aurten hiru hiru, hogeita hamahiru. Gaztea ez banaiz ere indar eta gogo handia dut bizitzeko, gozaten jarraitzeko, borrokan segi eta ume baten ilusioz aurrera egiteko. Ez da gazteen eta gaztetasunaren aurkako idatzia, baina zergatik ez heldutasunaren aldeko apologia pixka bat. Bakoitza bere lekuan, ez dugu ezer kalte. Urteko azken bertso saioan Nerea Ibarzabalek kantatutakoa gogora: "...gazte zaharrak ez dira hain moderno, listo, eta azkarrak amaitu zirenetik lau- rogeita hamarrak".



**Itsaso Gangoitia
Mazorriaga**
Korrikalaria
ABADIÑO | 1988

“Buruak eta gorputzak korrika egitea eskatzen didate. Arnasa hartzeko eta nor naizen gogoratzeko balio dit”

Ama izan eta gero, Itsaso Gangoitia lehiara bueltatu da. Bere ibilbideko lehenengo garaipena lortu du, Santutxun

KORRIKA • JOSEBA DERTEANO

Itsaso Gangoitiak Sei Izar Santutxuko Herri Krosa irabazi zuen joan zen asteburuan. Bere ibilbideko lehenengo garaipena da. Ama izan denetik, denbora hobeak egiten dabil, beharbada presiorik barik eta beste era batera korritzen ikasi duelako. Kuriositate modura, bere lehenengo lasterketa ofiziala ez zen herri lasterketa bat edo mendi lasterketa bat izan, triatloi bat baino.

Zure gurasoak korrika egin zaleak dira. Haiengandik datorkizu afizioa?

Ama eta aita ume-umetatik ikusi ditut korrika egiten. Gogoan dut ahizpa eta biok umeak ginela korrika egitera irteten zirela eta gu biok aitita-amamekin geratzen ginela. Gaztetan futbolekin ibili nintzen, Abadiñon eta Iurretan. Gerora korrika ibili naiz, neure kabuz, eta orain bost urte, lagun talde batek animatuta, triatloiak egiten hasi nintzen, federatuta.

Lehia triatloiekin hastea ez zen jauzi handiegia izan?

Imajinatu, igerian justu-justu, bideko bizikleta zer zen ere ez... Bai, erabaki ausarta izan zen [barrez]. Neska gutxi zebiltzala eta probatzen animatu ninduten, eta azkenean pausoa ematea erabaki nuen. Gorka Bizkarragaz hartu-emanetan ipini

eta beragaz entrenatzen hasi nintzen.

Zelakoa izan zen zure lehenengo triatloia?

Lehenengo triatloiak bertigo apur bat ematen du eta taldekako bat egitea pentsatu nuen, Senperen. Uretan sartu eta halako estatusun batek hartu ninduen... Baina taldekideen laguntzagaz egin nuen eta handik aurrera ondo joan zen.

Harrezkero, asko aritu zara?

Euskal zirkuituan aritzen naiz. Lehenengo urtean, nire harridurararako, eta espero barik, duatloien zirkuituan hirugarren geratu nintzen. Gogoan dut azken proba Durangon zela eta amaituz gero sailkapeneko podiumean egongo nintzela esan zidala taldeko batek. Eta lasterketa horretan gertatu zitzaizkidan...

Kontaiguzu.

Lasterketa hasi, oinera begiratu eta... txipik ez! Ez dakit ondo zelan, baina aitaren motxilan ahaztu zitzaizkidan. Aitaren bila hasi, aurkitu, txipa hartu, irteerara bueltatu... Minutu bat atzerago irten nuen, baina, tira, harrapatu beharrekoak Goiuria igotzen harrapatu nituen, eta hirugarren geratu nintzen.

Ama izan zinen orain urtebete inguru. Zelakoa izan da itzulera?

Kostatu zait errekuperatzea, bai

fisikoki eta baita mentalki ere. Umea izan nuenetik, neure kabuz entrenatzen nabil. Bestela, presio handia ipintzen diot neure buruari. Zerbait diferentea eginez bueltatu gura nuen eta Sorginen Lasterketan parte hartu nuen. Nire ibilbideko lehenengo mendi lasterketa. Helburu nagusia sentazioak berreskuratzea zen. Asko gozatu nuen eta, gainera, oso ondo ikusi nuen neure burua. "Lehen baino hobeto ikusten zaitugu", esaten zidaten ingurukoek. **Zure lehenengo garaipena ere orainxe heldu da, Santutxun.**

Bai, eta ez nuen espero. Aurretik, podiumak lortu ditut Durango San Silvestren eta Elorrioko Santxibirin. Ez dira lorpen ikaragarriak, baina niri ilusio handia egiten didate.

Aipatzekoa da ere Behobia-Donostia maratoi erdian aurten egin duzun denbora: 1.25.45. Zortzi minutu jan zenizkion 2021ean egin zenuen denborari.

Bai, alde handia dago eta harritu egin ninduen hainbeste hobetzeak. Gozatzea nuen helburu, baina lasterketak aurrera egin ahala geroago eta hobeto sentitzen nintzen. Nire markarik onak oraintxe lortzen nabil, ama izan eta gero.

Eta zelan esplikatu dezakegu orain hobeto aritzea?

Ez dakit, baina kasu askotan ikusten da. Emakume askori gertatzen zaie.

Oihane Unzalu korrikalaria ere ama da eta ANBOTOn elkarrizketatu genuenean honako hau adierazi zuen: "Orain zorrotzagoa izan behar dut dudana denboragaz. Lehen kirola egiten nuen eta orain entrenatu egiten naiz". Identifikatuta sentitzen zara?

Bada, ez dakit nire kasua den. Ni lehen Gorka Bizkarragaz entrenatzen nintzen. Orain ere egunero entrenatzen naiz, baina ez naiz hain exigentea neure buruagaz. Lehen presio handiegia ipintzen nion neure buruari, eta orain, lasaiago ibiltzera, gorputzak hobeto erantzuten dit eta gehiago gozatzen dut. Beharbada horregaitik etorriko zen hobekuntza.

Presioak lotu egiten du gorputza.

Bai. Esaterako, Behobia-Donostia lasterketan sarritan nuen buruan "denbora hau egin behar dut", "ezin diot Gorkari hutsik egin" edo antzerakoak. Gogoan dut urte batean ez nintzela joan ere egin lasterketa horretara, buruko mina nuelako. Neure burua gehiegi estutu nuelako sorturiko buruko mina zen. Gaur egun, buruko minenez ere joan egingo nintzen, eta gozatu egingo nuen.


Aurten distantzia olinpikoko triatloi bat egin gura dut, neure ibilbidean lehenengoz: Onditzen oroimenezko Donostiako triatloia

2024ra begira, zer helburu duzu?

Euskal Herriko zirkuitua egingo dut. Nobedade modura, distantzia olinpikoko triatloi bat egin gura dut, lehenengoz: Onditzen oroimenezko Donostiako triatloia.

Beste ezer gehitu gura duzu?

Bikotekideari eta etxekoei esker errak eman gura dizkiet. Euren laguntzarik barik ezingo nuke egin egiten nabilena. Buruak eta gorputzak korrika egitea eskatzen didate. Arnasa hartzeko eta nor naizen gogoratzeko balio dit. Gainera, korrika egiteko lagunekin geratzen naizenez, sare hori sortzeko ere balio du.



Itsaso Gangoitia Santutxuko probako helmugan sartzen. IÑIGO MORENTIN

Mailari eustea helburu zuen Zalduak igoera postuetatik gertu dagoela hartuko du zulotik irten guran dabilen Elorrio domekako derbian

Sailkapenari begiratuta, Zaldibarko kluba irabazteko faborito da, baina azken jardunaldietako joerari erreparatuta, Elorriok emaitza hobekak lortu ditu



Goian, Zalduako jokalariek gol bat ospatzen. Behean, Elorrioren aurtenko taldea.

FUTBOLA • J.D.

Bizkaiko Maila Gorenean dabilen Zalduak eta Elorriok derbia jokatuko dute domekan, 18:00etan, Zaldibarko Solobarria futbol zelaietan. Talde biak egoera guztiz desberdinetan helduko dira lehenengo itzuliko azken-urreko jardunaldira. Etxekoak aurretan daude. Azken urte bietan mailari eusteko sufritu eta gero, aurten onenekin lehian dabilen eta igoera postua puntu bira dute sailkapenean. Bisitariak, oster, ez daude euren unerik onenean. Iaz Ohorezko Mailatik bajatuta, une honetan Maila Goreneko jaitsiera postuan daude.

Zaldua da derbia irabazteko faborito. Baina Elorriok baditu esperantzari eusteko heldulekuak. Batetik, azken jardunaldietako joera: Zalduak azken hiru partidetatik bi galdu ditu eta Elorriok lau jardunaldi daramatza galdu barik. Beharrianak ere plus bat eman beharko liekeela uste du Ibai Intxaurre taldeko kapitainak. "Elorriok Zalduak baino beharrian handiagoa du eta hori lehenengo minututik bertatik igarri behar da".

Zalduaren ilusioa

Zalduak entrenatzaile berria du aurten: Egoitz Izarzugaza gernika-

rra. Bizkaiko Kopa irabazita dauka, Gernika Sportingegaz. 38 urte gaz, estreinakoz dabil Maila Gorenean entrenatzen, eta "esker oneko" dago eskaini dioten aukeragaitik. Taldeko "giro ona" eta "plantilla zabal" (iaz baino sei jokalaririk gehiago dituzte) dira taldearen martxa ona esplikatzeko arrazoi bi, Izarzugazaren ustez. Fin dabilen defentsan zein erasoan. Ugaitz Aurrekoetxea golik gutxien jaso duen bigarren atezaina da. Erasoan Borja Castriello veteranoa (6 gol) eta aurten taldera bueltatu den Mikel Mujika (5 gol) ez ezik beste hainbat jokalarire ere badabilen golak sartzen.

Elorrioren belaunaldi aldaketa

Elorrioren belaunaldi aldaketa izan da azken urteetan. Orain talde gazte-gaztea dute. Egoera hori islatzen duen adibiderik onena Intxaurrearen adina da; kapitainak 22 urte baino ez ditu. Talde osoaren batez besteko adina ere hor inguruan dabil. Horrek esplikatu dezake Elorriok azken urteetan izan duen beherakada. Urtea albiste on bategaz hasi dute: futbola utzita zuen Jon Arando taldera bueltatu da. Oso albiste "pozgarria" da, Intxaurrearen esanetan. Erdilari elorriarraren esperientziagaz eta gazteen ilusioagaz talde sendoa eta lehiakorra egitea dute erronka.

Jokaldia

Dabilen harria

Goroldiorik ez zaio aterako pelotoiari, urteak joan urteak etorri munduari biraka ari baitzaio pedalkadaz pedalkada. Kolorez, aniztasunez betezen ditu errepideak, eta denboraldia amaitzerako, ziklista gehienek mundo osoari itzuli bat emateko beste kilometro pilatuko dituzte hanketan.

Jakina da Euskal Herriak ordezkari-tza zabala izango duela eliteko bi maila nagusietan. Esaterako, World Tourrean (lehen maila) hamahiru ziklista izango dira onenen artean; eskarmentu handikoak zein gazteak. Azken hauen artean hiru nabarmentzen dira: Jon Barennetxea (Movistar), Igor Arrieta (UAE) eta Markel Beloki (Education First). Josebaren semeak gazte mailatik zuzen-zuzenean egin du jauzi gorenera, 18 urte



Alfontso Arroio Monasterio
Kirol kazetaria

Garai bateko profesionalak entrenatu aurretik lurretako plazan egiten zuten hitzordua historiara pasatu da

baino ez dituenen. Koxka bat beherago, Pro Team-ean (bigarren maila), 31 euskal ziklista arituko dira. Esan beharrik ez dago ordezkari gehien Euskaltel-Euskadik dituela, hamaseirekin. Kern-Pharmak zortzi izango ditu, eta Caja Ruralek bost. Beste biek atzerriko bidea hartuta dute jadanik. Ander Okamika Espainiako Burgos-BHn egingo du sasoa, eta Xabier Mikel Azparrenek Suitzako Q36.5 taldean.

Datuei erreparatuta, deigarria da gure eskualdeko ziklisten ordezkari-tza

urria. Durangaldeak bakarrik izango du pelotoian: Mikel Bizkarra. Urte luzez haztegi bikaina izan den inguruak aspaldian ez du uztarik eman. Arrazoi ezberdinak tarteko, garai bateko profesionalak entrenatu aurretik lurretako plazan egiten zuten hitzordua historiara pasatu da. Iragana da sasoi batean elkartzen zen pelotoitxoa. Nazioarteko tropela bizirik dagoen bitartean, Durangaldekoa geldigeldi dago. Nostalgiko jartzeko modukoa da Bizkarra bakarrik entrenatzen ikustea. Zer ginen, eta zer garen. Dabilen harriari ez zaio goroldiorik ateratzen; geldirik dagoenari, ordea... Egiturazko arazoa bainoago, koiunturala izatea espero dut. Ez gaitzen ezkor jarri; eskerrak, oraindik, bide ertzean ziklistak animatzen dagoenari ez zaion goroldiorik atera.



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

IURRETA: 3 logela eta komuna duxarekin. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=G 155.000 €**

DURANGO: 3 logela eta komuna. Berriztatzeko. **C.E.E=G 119.000 €**

DURANGO: 111 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. **C.E.E=F 226.000 €**

// ALOKAIUAN EROSTEKO AUKERAREKIN

ZALDIBAR: 80 m². Erdialdean. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=F 175.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 142.500 €**

IURRETA: 85 m². 3 logela, sukaldea despentsarekin, egongela eta komuna. Terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=E 159.000 €**

KANPATORROSTETA: Atikoa. Sukalde-egongela, logela eta komuna duxarekin. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 193.000 €**

BARRENKALEA: Apartamentu berria. Logela bakarra. **C.E.E=A 190.000 €**

SASIKOA: 131 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea terrazarekin eta egongela handia. Eguzkitsua. Ezin hobea. Garaje itxia eta ganbara. Bizitzen sartzeko moduan. **310.000 €.**

BARRENKALEA: 111 m². Berriztuta dagoen duplexa. 3 logela eta 2 komun. Ganbara ikuspegiakin. **C.E.E=G 198.000 €**

ANTZO ESTEGIZ: 94 m². 4 logela, 2 komun eta egongela balkoiarekin. **C.E.E=F 227.000 €**

ANDRA MARI: 85 m². 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=F 255.000 €**

ERRETENTXU: 85 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E=F 187.000 €**

ZALDIBAR: 70 m². 3 logela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan. Inbertsio moduan egokia. **C.E.E=E 105.000 €**

OTXANDIO: 80 m². 80 m²-ko beheko solairuak. Txokoa, garajea, biltegia egiteko aukera. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 90.000 €**

DURANGO: 118 m². 4 logela, 2 komun eta sukaldea eskegitokiarekin. Ganbara eta aparkaleku zuzena. Txoko komunitarioa eta solariuma. **C.E.E=E 309.000€**

MATIENA: 3 logela, komuna jakuziarekin, bainugela eta sukalde jantzia. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea. **C.E.E=E 180.000 €**

MIKELDI: 85 m². 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. **C.E.E=E 210.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Erretentxu. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. balkoia.

DURANGO: Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela eta despentsa. Igogailua. Berriztatzeko. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Askatasun etorbidea. 3 logela, sukaldea, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

ABADIÑO

ABADIÑO: Etxeazpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO 71,95 m²
3 logela

MARTXOAREN 8KO: 71,95 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea). Etxebizitza altua. Argitsua. Ikuspegi ederrak. Zonalde berdeak eta herriguneko sarrera/irteeratik gertu. 6 m²-ko trastelekua. 11,47 m²-ko garajea. Egoera onean.

239.000 € C.E.E: D



DURANGO 85 m²
3 logela

ERAIKUNTZA BERRIA: 85 m²-tik aurrera. 3 logela. Lehenengo mailako materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzeko. Estreinatzeko.

310.000 € + BEZ



DURANGO 90 m²
3 logela

FAUSTE BEKOA: 2003.urtean eraikia. Egongela handia, sukalde jantzia eta 2 komun. 55 m²-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Argitsua. Zonalde lasaia, herriko sarrera batetik gertu, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Ezin hobea. Garajea eta 13,5 m²-ko trastelekua.

319.000 € C.E.E: E



MATIENA 60 m²
2 logela

LAUBIDETA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Berrikuntzak behar ditu. Birbanatzeko aproposa. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebalde-hegoalde). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. ITE-a oraintsu pasatakoa. Teilatua berriztuta.

99.000 € C.E.E: F



MATIENA

ERAIKUNTZA BERRIA: 91,06 m²-tik aurrera. 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzeko.

280.000 €-tik aurrera + BEZ



IURRETA 57 m²
3 logela

URALDE: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna (duta erretilua). Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak gertu. 11 m²-ko ganbara.

150.000 € C.E.E: G

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatzeko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

MONTORRETA KALEA: 3 solairutako pabilioia 1.309 m² inguruko azalerarekin. **728.000 € / E.E.Z= SALBUETSITA.**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//BERRIZ

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeko baserri lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € ORAIN 250.000€**

//GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeko lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **LEHEN 153.000 € ORAIN 146.000€/ E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000€ ORAIN 570.000€/ E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.

//BERRIAK

MADALENOSTE: 3 logela, sukaldea ofizarekin, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara bikoitza. Garajea. **290.000 € / E.E.Z= E**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AKARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



Urtarrilaren 4an **Mila Laucirican** urtegune izan da. Zorionak, amama! Besarkada bat etxeko danon partez.



Zorionak, maitiak, urte barriko gure zurrunbilue hasi da! Konturatu orduko **Intzak 15** eta **Iratik 12** egin doez, eta aitatxok be beste bat gehiago. Pilo pilue maite zaituegu Inharrek eta am-atxok, musutxu asko!

Botikak

BARIKUA, 12 · 09:00-09:00

DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 13 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL, ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

DE DIEGO, INTXAURRONGO 22. - DURANGO

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 14 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA, MURUETATORRE 2C - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 15 · 09:00-09:00

BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 16 · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

AIRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 17 · 09:00-09:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 18 · 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Eskelak



Egoitz Uberuaga Aranburu

1986/01/13 | 2019/01/13

Gogorra da zuk utzitako hutsunearekin egunero bizitzea eta hau onartzea, baina etxekoak bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko. Asko maitte zaitugu!

Etxekoak.
Mallabian, 2024ko urtarrilaren 13an



Lutxi Iturriaga Urizar

Iurretan hil zen, 2024ko urtarrilaren 10ean.

Larrazabaletik larre zabaletara

Hileta meza gaur, **hilak 12**, arratsaldeko **18:00etan** Iurretako Mikel Goiaingerua Deunaren parrokan.

Familiakoak.



Eguraldia

ZAPATUA ↓ 2° / 14° ☁️

DOMEKA ↓ 7° / 16° ☁️

ASTELEHENA ↓ 9° / 14° ☁️

MARTITZENA ↓ 7° / 16° ☁️

EGUAZTENA ↓ 12° / 17° ☁️

EGUENA ↓ 10° / 16° ☁️

Alizia miresgarria
2024ko urtarrilak 9/31 Iurretan

URTARRILEAN ZEHAR
Maiztegi Herri eskolako ikasleek eta Bibliotekako irakurle klubetako partaideek "Alizia" irakurriko dute.

URTARRILAK 15-26
"ALIZIAREN BURUTAZIO MIRESGARRIAK" ARETO LITERARIOA
2018. urtean sorturiko areto literario honen zuzendaritza Itziar Zubizarretari dagokio eta Aitziber Alonsok gauzatu du bere eszenifikazioa.

BISITA GIDATUAK
Haurrentzako bisita gidatuak izango dira Maiztegi Herri Eskolarekin adostuak. Helduentzako eta familientzako ere bisita gidatuak eskainiko dira.

URTARRILAK 15
19:00 Erakusketaren inaugurazioa helduentzako bisita gidatuarekin
Hizkuntza: euskara
Aldez aurretik izena emanda

Ekintzetan izena emateko
bibliotekakoekintzak@iurreta.eus • 688 86 37 36

URTARRILAK 19
"ALIZIA NORBERE BARRUAN"
Arte adierazpen tailerra haurrentzat
Dinamizatzailea: ONDITZ MENDIZABAL OLABARRIA
17:00-18:30 6 urtetik gorako haurrentzat
Aldez aurretik izena emanda

URTARRILAK 26
"ALIZIAREN BURUTAZIO MIRESGARRIEKIN PASEOAN"
Familientzako saioa
Hizkuntza: euskara
Ordua: 17:00
Adina: 6 urtetik gorako haurrak + heldu laguntzaileak
Dinamizatzaileak: MIREIA DELGADO EXPOSITO eta SAROA BIKANDI LOPEZ

URTARRILAK 25-31
Alizien ilustrazio tailerra Maiztegi Herri Eskolako LH3-LH6ko ikasleentzat.
Dinamizatzailea: ONDITZ MENDIZABAL OLABARRIA

"Panaman, askotariko kulturen arteko elkarbizitzak liluratu nau"

Rakel Unzaluk bost urte daramatza Panaman (Erdialdeko Amerika). Durangarrak nabarmendu du oso kultura desberdina dela hangoa, eta horretara egokitzea ez dela erraza izan



Rakel Unzalu Martija
Arkitektoa
DURANGO | 1991

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Unibertsitatean ikasketak amaituta, Rakel Unzaluk Panaman lan egiteko sei hilabeteko beka lortu zuen 2019an. Guztiz ezezaguna zitzaion herrialdea izanik, espektatibarik barik joan zen hara. "Denak harritu ninduen, onerako", nabarmendu du, eta dagoeneko bost urte daramatza han. Urte berria Durangon hasi ondoren, Panamara bueltatu berri da.

Sei hilabeterako joan zinen eta bost urte daramatzazu Panaman. Euskal Herrikoagaz alderatuta, oso bizimodu desberdina da hangoa?

Bai, klimatik hasita. Hezetasuna jasanezina da, baina eguzkia

Mexikora joango nintzateke, Erdialdeko Amerika osoan zehar doan autobide interamerikarretik

egunero ikusten dugu eta hori garrantzitsua da niretzat. Urte osoan joan zaitezke hondartzara, eta aparta da hori, denbora luzez euria egin arren. Euriaren kontua ezaguna egiten zait. Hemen ez dago poteorik, baina parkeatzeko ohitura dago; denbora luzez leku batean trago batzuk hartzeko eta

berriketaldiak egiteko batzen dira. Egia esan, egokitzea ez da erraza izan, oso kultura desberdina dute, denboraren pertzepzioa desberdina da... Baina oso ondo hartu ninduten eta horregaitik jarraitzen dut hemen.

Zerk harritu zaitu gehien? Zer gustatu zaizu gehien?

Joan-etorri handiko herrialdea izatera, mundu osoko kulturen topagune bihurtu da, eta bertako kultura nagusiekin batera elkar bizidun askotariko kulturartekotasun horrek liluratu ninduen, batez ere hain txikia den herrialde batean.

Bizikleta enpresa batean lan egiten duzu. Zein da zure lana edo ardura?

Bizikleta dendetako espazioak diseinatzeko kontratatu ninduten. Baina denborak aurrera egin ahala ardura gehiago hartu dut, eta orain produktu eta ikusmen saila koordinatzeaz arduratzen naiz, eta arkitektura proiektu batzuk ere baditut.

Bizikleta hartu eta nora joango zinateke?

Mexikora, Erdialdeko Amerika osoan zehar doan autobide interamerikarretik. Lagun batzuekin halako zozter egiteko plana dut, eta, batek daki, egunen batean egingo dut beharbada.

Zeren falta igartzen duzu?

Horrelako herrialdeetan gertatzen den moduan, janariarena, familiarena eta lagunena. Baita ibiltzeko atseginagoa den hiri baten falta ere. Batzuetan gustura jantziko nuke jaka bat, baina hemen ez du zentzurik, bero handiegia egiten du eta. Poteoren falta ere igartzen dut.

Janariaren, familiaren eta lagunaren falta igartzen du; baina Panaman ibiltzeko atseginagoa den hiri baten falta ere

Panamara joan aurretik, beste egonaldi luze batzuk ere egin dituzu Durangotik kanpora.

Dublinen (Irlanda) bederatzi hilabete egin nituen *au pair* lanetan, 19 urte nituela, eta Madrilen (Espainia) bost urte egin nituen Panamara etorri aurretik. Gertu dagoen zenbait herrialdeetan ere ibili naiz, batzuetan lanagaitik, eta beste batzuetan turista legez: Costa Rica, Guatemala, Dominikar Errepublikar, Kolonbia, Venezuela, Peru, AEB...

Gabonak Durangon pasatu dituzu. Tarteka etortzen zara Durangaldera?

Bai, jakina. Urtero-urtero birritan, baina laster ama izango naiz eta baliteke egoera aldatzea. Zalantzarik barik, egunen batean bueltatu gura nuke, baina oraindino ez da ordua.

Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea / Jubilatua



Mugikorrei stop

Mugikorrek oso egokiak dira zuzen erabiliz gero, baina, zoritxarrez, erabilera desegoki hori menpekotasun bihurtu da askorentzat. Edonora begiratzean gehienak tramankulu hori eskuetan dabilzala ikusten dugu.

Bere erabilera ez dago adinik, edonork erabiltzen baitu. Medikuairengana joan eta espe-roan daudenak gehienak pantailari begira. Edozein terrazatan lagunekin berbetan aritu beharrean, begiak pantailari itsatsita. Gure inguru politekin gozatu beharrean, osteratxo egiten ari direla pantailarekin hipnotizata. Guraso askok umeei baino arreta gehiago jartzen diote mugikorrari. Eta holan bazter guztietan gure gorputzeko beste atal bat dela ematen du, eta kasualitatez ahazten badugu urduritasunak menperatzen gaitu.

Aurreko baten, Elorrioko kaleetan nembilela, baneka bat irakurtzen ikusi nituen eta horrek poztu ninduen, hauek ez baitziren aparatu honen menpe erori. Gainera, ez gara konturatzen gure joerak umeak ere mundu honetara erakartzen dituela? Eta jolasten egon beharrean mundu isolatu batera bultzatzen ditugula?

Zorionez, asko konturatzen ari da erabilera honi mugak jarri behar zaizkiola, gure gazteengan eta ez hain gazteengan kalte handia sortzen ari delako, eta neurriak hartzen ari dira, bai eskoletan eta baita etxeetan ere.

Gure nerabeak, eta zenbait heldu ere, hezi egin behar ditugu egoki eta zuzen erabil dezaten, bere buruari eta besteenei kalterik ez egiteko.

Zelan aldatu diren gauzak. "Telefonoa kable bati lotuta zegoenean... gu libre ginen, orain telefonoa libre dago eta gu hari lotuta".

Aitatxo, amatxo, utzi telefonoa eta jolastu nirekin!



ATE IREKIAK

Urtarrilak 20, 11:00etan
Urtarrilak 22, 17:00etan

☎ 944 280 174 / 615 751 843

✉ idazkaria@landakoeskola.org



LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA
Hazi, hezi, hegan egin

